


ORIOKO ETA AIAKO ALDIZKARIA-2020-UZTAILAREN 3A-419.ZENBAKIA

KARKARA



SURFA

**ASPALDIKO
OLATUEN GAINEAN**



Bidaiatu eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.

22, 26, 28, 49, 55 eta 60 eserleku dituzten literadun autobusak ditugu.

Ubegun industria gunea, 4 AIA-ORIO

943-13 28 93 · 656 78 29 99 (Gabino)

Fax-a: 943-89 05 62

alustiza@autocaresalustiza.com



Olaskoegia z/g

AIA-ORIO

943-13 04 38

ANORGA TXIKI, S.L.

KRISTALDEGIA

Oria etorbidea, 4 LASARTE-ORIA

anorgatxiki@gmail.com

www.cristaleriaanorgatxiki.com

943-37 17 33 · 610 45 93 45

- Eraikin komertzialak
- Kristaldura bikoitza
- Segurtasun beirak
- Dutzako manparak eta ispiluak



ELEKTRIZITATEA

943-10 01 81 · 640 28 13 08

Zigordia, 52 behe C · ZARAUTZ

kukuarri@kukuarri.com

edaritegia

Antilla jatetxea

Abeslari kalea, 2 ORIO

943-83 23 09

- Menuak
- Plater konbinatuak
- Errazioak
- Ogitaratekoak

arkaitz taberna

EGUNEKO MENUA

OGITARTEKOAK

PINTXOAK

PLATER KONBINATUAK

KARTA

Termaza ederrarekin giro ezin hobea

abeslari kalea 6 - 943-83 16 57

Pelotari, 5 · ORIO

943-83 00 34

autolan13@hotmail.com

AUTO - LAN C. B.




Zerbitzu teknikoak 24 ordu

fontana

iturgintza

iturgintza · gasa · berogailuak

- Komun eta sukaldeen erreforma
- Galdara eta termo elektrikoaren instalazioa
- Ur-jarioak aurkitu eta konpondu
- Bainujontzia kendu eta duxa jartzea
- Zoru erradiatzailea

Arrantza kalea, 3 · ORIO

fontana-jul@hotmail.es

www.fontaneria-fontana.com

943-53 98 88 · 661 26 28 28

BODEGAS

Gailur

01307 BANCOS de EBRO

Tel./Fax 943 20 91 58

www.bodegagailur.com

Arabar Errioxa

ZUDUGARAI



Gelarioa Txakolina

DOMINICOM DE ORRIEN

Tel.: 943-83 03 85 · Fax-a: 943-83 59 52

txakolizudugarai@euskalnet.net · www.txakolizudugarai.com

Carmen eta Txomin

ARRAINDEGIAK

TXOMIN ARRAINDEGIA

Eusko Gudarien kalea, 44


943-83 27 47

CARMEN ARRAINDEGIA

Arizaga kalea

943-83 05 37





KARKARA 419

2020-UZTAILAREN 3A

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:
IÑIGO GAITON

Aurkibidea

- | | | | |
|----|--|----|---|
| 5 | Iritzia Aiora Larrañaga Solaberrieta
<i>Aurretantzean, KARKARA zurekin
hilabete hasieran</i> | 34 | Akuilua hartuta Txurrumuski
Elkartea
<i>Hemen da Udan Elkar Zaintzen</i> |
| 6 | Hitz tantak Onintza Lete Arrieta
<i>Saioa Perona</i> | 35 | Nire honetan Iñigo Exposito
<i>(Auto)kontrola</i> |
| 8 | Izpiak eta hizkiak Iñigo Gaiton
<i>Aurreneko surfaria</i> | 36 | Ikasleak idazle Zingira Eskola |
| 11 | Gutunak | 37 | Moila bazterretik Garbiñe
Manterola
<i>Gazia II</i> |
| 12 | Oroimenaren kutxa Iñaki Iturain
<i>Zenbat maite dudan Orioko plaza!</i> | 39 | Euskara Usoa Zulaika
<i>Euskara eta merkataritza</i> |
| 17 | Herrian galdezka | 40 | Bazkide kluba |
| 18 | Erreportajea Iñigo Gaiton
<i>Mende erditik gora olatu gainean</i> | 42 | Plazan bazan |
| 26 | Erreportajea Aritz Mutiozabal
<i>Musikaren dohain mentala</i> | 44 | Agenda |
| 30 | Erreportajea Iñigo Gaiton
<i>Lehen paladetatik banderak
irabaztera egindako bidea</i> | 45 | Zerbitzuak |
| | | 46 | Hasi bertsotan Ekiñe Saizar |

KARKARA



TOKIKOM

Argitaratzailea

Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.
Soreasu 1. 20730
AZPEITIA
943-83 15 27
karkara@karkara.eus
www.karkara.eus
Lehendakaria
Rikardo Uzkudun

Erredaktoreburua

Aiora Larrañaga
Solaberrieta
Erredaktore taldea
Onintza Aiestaran
Onintza Lete Arrieta
Elizabete Manterola
Iñigo Gaiton
Rikardo Uzkudun
Aritz Mutiozabal

Diseinu arduraduna

Ane Azkue
Publizitatea
Leire Martija

Ale honetako kolaboratzaileak

Iñaki Iturain
Txurrumuski Elkarte
Iñigo Exposito

Garbiñe Manterola
Usoa Zulaika

Banatzaleak

Endika Ruiz (Orio)
Manex Dorronsoro (Orio)
Eli Irureta (Aia)
Inprimategia
Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)

Lege Gordailua:

SS-346/90
ISSN: 1132-1105
Tirada: 3.450 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia



ORIO



AIKO
udala

UDA KANPAINA 2020

*Hamabostaldi Kirolanitzak:

Astelehenetik Ostiralera 9:30-12:30

*Kirol intentsiboak:

Astelehenetik Ostiralera (1h egunean)


Hamabostaldiak:

Uztailak 6-17 · Uztailak 20-30 · Abuztuak 3-14 · Abuztuak 17-28



azkue
karrozeriak

Ubegun industrialdea, 7
AIA-ORIO
943-83 51 86



Lagundu plastikoak murrizten

1. Zuzenean otarrean sartu produktua
2. Behar baduzu, eskatu eta eraman etxera gure poltsa berrerabilgarriak
3. Hurrengoan, ebetiki ekar ditzakezu poltsak



Gabon
TABERNA

Eusko Gudarien kalea, 7
943-83 06 09



IGLESIAS
SARRAILAGILEAK

iglesiasserrajereros@yahoo.es

www.iglesiasserrajereros.com

Erribera kalea, 14 · ORIO

637 72 33 08

- Ateak irekitzen ditugu
- Sarraila-zilindro aldaketak
- Ateak ixteko malgukien aldaketa
- Komunitateentzako zerbitzua

24orduko
zerbitzua



GARMENDIA
Higiezin Agentzia
Aholkularitza
Aseguruak

943-83 44 66 · 688 75 59 48
Ibai Ondo, 1 · ORIO
info@egarmendia.com



ATEAK
ZOKALOAK
ARMAIRUAK NEURRIRA
LEIHOAK
ESKAILERAK
ARROZTEGIA OROKORREAN

ITZIAR
KIROLAK

Eusko Gudarien kalea, 23
ORIO
943-83 31 03

OINARRI PODOLOGIA ZENTROA



Arrantzale kalea, 63 behea
ORIO

943-57 53 61

oinarri@podologia-oinarri.com


www.podologia-oinarri.com



XIXARIO
Erretegia

Txuleta eta arrainak
parrillan

Eusko Gudarien kalea 2 · ORIO · 943-83 00 19



Garraio frigorifikoa
Nazionala eta Nazioartekoa



komarak



ibilbideak

generoa



garraioak

Ubegun industriagunea, 4
AIA-ORIO
943-89 4024 · FAX-a: 943-13 01 44

Aurrerantzean, KARKARA zurekin hilabete hasieran



AIORA LARRAÑAGA SOLABERRIETA

Batek baino gehiagok ezustekoa hartuko zuen gaur, buzoia ireki eta uztailako KARKARA bertan ikusi duenean. Pasa den astean banatu genuen ekainekoa, baina bi aldizkari elkarren segidan kaleratzeak badu arrazoi bat. Aurrerantzean hilabete bukaeran argitaratzeari utzi, eta hilabete hasieran banatuko dugu KARKARA. Ez da kapritxoz, bat-batean hartutako erabakia izan. KARKARAK eta eskualdeko beste hainbat herri komunikabidek–Baleike, Erlo Telebista, Urola Kostako Hitzza, Maxixatzen eta Uztarria– Urolako Komunikazio Taldea sortu genuen urte hasieran. Horrek sinergiak aprobetxatzeko eta gure baliabideei etekin handiagoa ateratzeko aukera ematen digu. Dena dela, elkarlan horrek baditu gainditu beharreko hainbat oztopo ere, eta horietako bat zen tokiko aldizkariaren argitalpena koordinatzea. Izan ere, KARKARA hilabete bukaeran argitaratzen bazen ere, gainontzeko herri aldizkari guztiak hilaren hasieran kaleratzen ziren, eta horrek hainbat arazo sortzen zituen elkarlanerako. Horregatik, aurrerantzean hileko lehen ostiraletan banatuko dugu aldizkaria, baina testuingurura moldatzen saiatuko gara beti. Adibidez, iraileko aldizkaria Kontxako estropadaren ondoren argitaratzea da gure nahia, urteko arraun hitzordurik garrantzitsuenaren berri emateko.

Agian zenbaiti kostatzen zaie argitalpen egun berrira ohitzea. Dena dela, argi utzi nahi dut, aldaketak aldaketa, KARKARAK betikoa izaten jarraitzen duela, eta aldaketatxoak egiten ditugula irakurleei produktu hobea eta osatuagoa emateko asmoz. Izan ere, KARKARAK herriarrien komunikazio beharrak asetzeko egiten du lan, gure txikitasunetik abiatuta kalitatezko produktua eskaintzeko. Halaxe egin dugu etxean konfinatuta egon garenean, eta hala jarraituko dugu aurrerantzean ere. Bukatzeko, KARKARako zuzendaritza talde osoaren izenean har ezazue gure agurrik beroena, eta uda on bat opa dizuegu, merezi duzue eta! Guk, bien bitartean, webgunerako lanean jarraituko dugu. Ez ahaztu, uda honetan ere *karkara.eus*-n ikusi dugu elkar. ■■■

**ALDAKETATXOAK
EGITEN DITUGU GURE
IRAKURLEEI PRODUKTU
HOBEA ETA OSATUAGOA
EMATEKO ASMOZ**

ERRETEGIA

Sarasua



info@bodegonsarasua.es | Erreserbak: 943-83 00 05

Saioa Perona

TESTUA: ONINTZA LETE ARRIETA

ARGAZKIA: UTZITAKOA

KARKARAN kolaborazioak eginez eta Orioko Herri Ikastolako *Pergola* aldizkaria egiten lagunduz hasi zuen diseinatzaile ibilbidea Saioa Peronak (Orio, 1989). Ondoren, *Urola Kostako Hitza* eta *Berria* egunkarietan eta *Ttipi-Ttapa* hedabidean aritu da diseinatzaile eta maketatzaile lanetan, eta azken horretan dihardu gaur egun. Tartean, Bartzelonan egin zuen infografiaren inguruko masterra, eta mundu horrek ekarri izan dio aitortzarik ere. Diseinuaren alderdi gustukoenetakoa du, gainera.

Askotariko lanak egitea tokatzen zaio diseinatzaile bati hedabideetan. Zer duzu gustukoen?

Ttipi-Ttapan, aldizkariko lanaz gain lan komertzial dezentetara sartzen zaigu inguruko udal eta merkataritza txikien partetik. Niri lan mota guztien prozesuak gustatzen zaizkit. Hutsetik sortzea ederra da, betidanik gustatu izan zait sormen hori lantzea, gaia edozer dela ere.

Infografieta zaude espezializatuta.

Bai, eta egia da datuak dituzten lanak erakartzen nautela bereziki. Erakartzen nau istorio bat kontatzea infografia bidez, edo datuak lantzea modu bisualean...

Halako zure lan bat sartu zuen Column Five agentzia estatubatuarrek 2017ko lan onenen zerrendan.

Bai, masterra egiten ari ginenean irakasleek esan ziguten aurkezteko gure lanetako bat lehiaketa batera. Beganismoaz egindako poster bat bidali nuen, eta lehiaketa haren harira aukeratu zuen Column Five-k lan hura bere zerrendarako.

Denbora librean egiten dituzu infografiak edo kartelak?

Lan gutxi badut gustatzen zait gauza berriak ikastea. Azkenaldian animazioa ari naiz neure kasara ikasten. Masterrean gainetik ikusi genuen, eta asko gustatu zitzaidan.

Animazioa, zertan erabiltzeko?

Gauza motzak, ez marrazki bizidunen tipora, baizik promozio bat egiteko eta halakoetarako.

Alegia, infografia animatu bat sortzeko, mugimendua duena, edo gift-ak. Adibidez, Ttipi-Ttapan bannerrak egiteko asko lagundu dit animazioak.

Lankideek edo bezeroek gauza zailik eskatzen dizute, edo erronkaren bat sentitu duzu?

Orain hasi gara mapa interaktiboak eta halakoak egiten Flourish programarekin. Berez erraza da horrelako mapa bat lortzea datu interaktiboekin, Euskal Herrikoa bada, adibidez. Eskualdekoa denean, zailagoa da. Izan ere, interaktiboa denez, atzean datu espazialak behar ditu, egokitu egin behar dira beste programa berezi batekin, eta lanik konplexuena hori dela esango nuke.

Betidanik erakarri zaitu diseinuak?

Bai. Ikasle garaietan asko gustatzen zitzaizkidan argazkilaritza eta marrazketa teknikoa. Lanbide Heziketako ate irekietan diseinuko ikusi nuen, horixe ikasten hasi, eta pila bat gustatu zitzaidan. Zerbait sortzeko prozesu guztia dut gustuko, baita behar den sormena ere. Gainera, bezeroari gustatzen zaionean zure lana, edo zuk egindako kartel bat kalean ikusten duzunean, horrek asebate egiten zaitu.

Besteen lana jarraituko duzu...

Diseinatzaileak, agentziak, marrazkilariak eta argazkilariak zertan ari diren fikatzen naiz.

Instagram oso erabilgarria da, eta badira bestelako plataforma batzuk ere inspiratzeko baliogarriak; Behance eta Dribbble, esaterako.

Badago zerbait bereziki modan une honetan?

Gaur egun, diseinu lan bat sortzerakoan, euskarri guztiekin pentsatu behar da, denetarako balio behar du: sakelekorako, webgunerako, sare sozialetarako, animaziorako... Horregatik, orain erabiltzen den estiloa nahikoa ikonikoa da.

Askorik jakin gabe kartelak nahiz logoak egin daitezke gaur egun plataforma digitalei esker.

Eta lan txukunak lor daitezke, baina gauza eskas asko ere ikusten da. Gure lana sarri ez da askorik baloratzen, baina emaitzetan aldea dago.

Diseinu itsusiek ematen dizute begiko minik?

Bai, baina ikasi dut tolerantzia izaten kar-kar. ■■■



Aurreneko surflaria

ARGAZKIA ETA TESTUA: IÑIGO GAITON

Joxeju Olasagastik bidalitako argazki zaharren arrastoari segika, 'surf trip' ederra egin dugu iraganera aldizkariak dakarren erreportajea. Bidean zehar, Ramon Esnal *Etxeberri* ezagutzeko aukera izan dut; ofizioak tarteka ematen dituen poz horietakoa izan da harekin juntatu izana. Olatuen gainean hizketan hasi eta urpeko kontuekin segi, aldizkari osoa betetzeko adina bizipen badu memoriaren kutxan gordeta.

Erreportajea lantzen hasitakoan, herrian aurreneko surflaria nor izan zen jakiteko seta sartu zitzaidan. Eugenio Cotadok, Juan Antonio Azkuek eta Joxeju Olasagastik eman zidaten Ramonen erreferentzia, eta, hark, eskuzabal erantzun zizkidan egindako galdera guztiak.

Etxeberri da herriko aurreneko surflaria. 60ko hamarraldiaren erdialdera hartu zituen aurreneko olatuak gure hondartzan, zarauztarrak surf egiten hasi ziren garai bertsuan, edo pixka bat lehenago... Hari mutur interesgarria dago hor, inork gehiago tira egin nahi badio.

“Hondartzan gozatu ederrak hartutakoa nauk!”, bota zidan argazki hau egiten ari nintzaion bitartean. Sinesten diat, Ramon! ■■■





PUBLIZITATEA

Ttipi
Eusko Gudari, 15
ORIO
943-25 96 95
ttapa

URANGA
burdindegia
Opari, menaje eta erremintak
Eusko Gudari, 5 · ORIO · 943-83 12 36

Kolon Txiki
edartegia · jatetxea
Herriko Enparantza 4
ORIO
Tel.: 943-83 00 44

Katu Horia
albaitaritza klinika
ESTROPALARI, 10
20810 ORIO
tel. 943 11 66 99
LORRIKIDIAK
668891129

kutixi
kafetegia
Aritzaga 9 · ORIO · 943-13 15 17

KAİOA
kaioa_denda
www.kaioa.es

Lizaso Dekorazioa
Eusko Gudari, 48 · ORIO · 943-83 07 84
litzilizaso@gmail.com

KORTABERRI
arotz lanak
kortaberri.arotza@hotmail.com
665 70 33 47

libe
dietetika
elikadura aholkularitza
Eusko gudariak, 35 · ORIO
(sarrera Arrantzale kaleetik)
943-53 64 94
697 23 86 56
libegarmendia@gmail.com
www.libegarmendia.com

MARIDO
ILEAPAINDEGIA
Eusko Gudari, 8 beheko · ORIO
943-13 47 29

Zarautz
Hileta Zerbitzuak
1962. urtetik zure zerbitzura
24 ordu zure zerbitzura
Beilatokia · Lekualdatzeak ·
Eginbide guztien tramitazioa
Araba kalea 35 · ZARAUTZ
943-89 49 37
info@zarautzhiletazerbitzuak.eus

Norberaren errerealizazioa

IDOIA ETXABE ARRUTI

ORIOARRA

Norberak norbere errerealizazioa gauzatu edo egitate bihurtu ahal izatea garrantzitsua da bizitza den bidexka aldapatsu zein malkartsuan. Itxaropenaren utopia lazgarri zein urduria dauka. Bakoitzak ahalmen edo gaitasun ezberdinak ditu zeharo. Esaterako, bat oso argia eta azkarra izan daiteke matematika arloan, eta beste bat, berriz, hizkuntzetan. Garrantzitsua deritzot bakoitzak dituen arlo positiboei adiera eman ahal izateari, gaitasunak edo ongi egiten ditugun ekintzak azpimarratuz, eta determinitatez indartuz.

Gaineratu behar dut oso garrantzitsua deritzodala ahulguneak indartzeko

prozesuari, eta honetan arreta edo atentzioa jarri behar dela uste dut. Bizitzak dituen minutu nimiñoak azkenak balira bezala biziz, eta bizitza den bidezidorrean gure gaitasun eta ahulguneak determinazioz eta indargunez indartuz. Horrela, gure errerealizazio prozesua garatu ahal izan dugu.

Gure datuak babesteko?

HERRITARRA

Erakunde publikoetan gestioak egin behar ditudan aldiro harritu nau zenbat traba jartzen zaizkigun, zenbat gauzatara joan behar den presentzialki, zenbat paper eskatu, sinatu, entregatu behar diren. Orain aste batzuk, NAN txartelean Gipuzkoako beste herri bateko helbidea neukalako, Zarauzko Lanbiden ezin izan zidaten gestiorik egin. Nola da posible 2020. urtean

Lanbidek ez edukitzea herritarren erroldara zuzenean sartzeko aukera? Zergatik galdu behar dugu denbora udaletxera joan, errolda agiria eskatu, eta bigarren buelta egiten? Gure datuak babesteko legeagatik da? Ba, nik dakidala, Gobernuak lasai asko jarraitzen du guztion mugimenduak kontrolatzen sakelekoaren bidez. Zer pentsatua ematen du, ezta? ■

HILDAKOAK

- **Karmen Barandiaran Arrieta.** Orion, ekainaren 29an. 93 urte.
- **Maria Jesus Exposito Lapeira.** Orion, ekainaren 29an. 85 urte.
- **Maria Solaberrieta Urdangarin.** Orion, ekainaren 30ean. 94 urte.

Ezohiko San Pedro jaiak

Herriko festak ere ez dira libratu koronabirusaren eraginaz, eta aurten ezohiko moduan "ospatu" dira. Ekainaren 29an, San Pedro Egunean, ez zen festaren arrasto handirik herriko plazan eguerdi aldean. Udalak etxafuegoa bota zuen, ohiturari jarraituz, eta elizan Salatza abesbatzak kontzertua eman zuen meza nagusiaren ostean.



GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). **KARKARAK** eskubidea du gutuna laburtzeko. **KARKARAK** ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta pertsona horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, **KARKARAK** esan egingo dio.

Argitaratu nahi diren gutunak **KARKARARA** bidali daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.eus edo erredakziora eskura ekarri -Orioko edo Alaioko Kultur Etxean- edo postaz bidali. Kultur etxea, 20810 Orio

Zenbat maite dudan Orioko plaza!



IÑAKI ITURAIN iiturain@gmail.com

ARGAZKIAK: IÑAKI ITURAINEN ARTXIBOA

ETA ZARAUZKO PHOTOMUSEUM

Orioko plaza obretan da aspaldi honetan. Ez dakigu noiz arte, baina erabat eraberrituko da: kalea oinezkoentzat; ibilgailuak errio ertzetik, bi norabideetan; eta kiosko berria. Plaza herriko kultur gune nagusia izan da historian; herritarrentzat funtzio asko bete ditu:

erreboteko pilotalekua izan zen, azoka eremu, abere feria, arrantzaleen portu, dema plaza, musika bandaren kontzertu eta emanaldi gune, komedianteen antzetzoki, estropalarien errezibimenduaren topagune, haurren jolastoki, gazteen grinen probaleku, zaharren atsedengune... Zer ez! Gauza bat izan du, hori bai, munduan oso-oso plaza gutxi izan dutena: arrantzaleak lehorreratutakoan, baporeak ia plazan bertan, haren edergarri, munduko antzokirik oneneko atrezzo dotoreena baino politagoa.

Orain, herriak kultur etxea, kiroldegia eta Arraunetxe izanda, ekitaldi gehienak plazatik kanpo izaten dira. Plazan: osteguneko azoka, herriko festetako musika eta ekitaldi batzuk, maiatzeko garagardo azoka, uztailako Bisiguaren Festa, arraunlarien errezibimendua... eta gutxi gehiago.

Udal artxiboko dokumentuetan plazari buruz topatu dugun dokumenturik zaharrena 1883koa da. Orduko alkate Ramon Altunak sinatua, Ondartxikia izeneko tokian abere feriarako plaza eraikitze baldintzak aipatzen dira: hormatzar bat eraiki, estolda sarea jarri eta lur betelana egin. Jose Antonio Uranga eta Juan Jose Garateri agindu zitzaion lana.

Oraingoa egiteko bota duten kioskoa 1970 ingurukoa zen. 1969-02-28ko Udalbatzak erabaki zuen haren aurrekoa bota eta berria jartzea. Goiko egurra ustelduta eta burdina herdoilduta, arriskutsu zegoen; burdin puska bat erori zitzaion buru gainera herritar bati. Diputazioak onartu egin zuen obra. Beraz, 50 bat urteko historia izan du kiosko horrek. Azken urteotan, bi ikur izan ditu: zoruan marraztuta, aingura, euskal lurrari lotzeko; eta goitik zintzilik, airean hegan bezala, zortziko outriggerra, herria mundura zabaltzeko.


Dokumentuek diotenez, 1970 arteko kioskoa 1925ean eraikia zen. Aurreko plaza haren historia mamitsuagoa da orain

**PLAZA HERRIKO
KULTUR GUNE NAGUSIA
IZAN DA HISTORIAN**

artekoarena baino: 1925-08-20ko goizean inauguratu zen plaza. Joaquín Cortes zen orduan alkate. Ostegun goiz hartarako, Cortesek 10 zinegotziak eta herriko bikarioa deitu zituen ekitaldira, plaza berria bedeinkatzeko. Urte hartan bertan, 1925eko udazkenean, bigarren estreinaldia izan zuen, bisitari ospetsuekin. Espainiako erregina Victoria Eugenia etorri zen, Alfontso XIII.aren emaztea, Donostiatik Orioko plazaraino bertaraino, bapore batean. Estropalariak, Antonio Maria Uranga patroiz zutela, irabazitako Kontxako bandera bedeinkatzeko ospakizunera gonbidatu zituen alkateak. Meza entzun zuten plazaren abaroan.

1940an beste bisitari bat izan zuen plazak, oriotarrentzat erregina baino ezagunagoa: Mariano Juaristi, *Atano III.a* pilotaria. Atano ere Kontxako banderaren bedeinkaziora etorria, Jose Mari Urdangarin, *Txato*, patroiarekin eskuratutakora. Atano III.ak urte hartan irabazi zuen bere lehenengo txapela. Arraunlaria eta pilotaria lagunak ziren; horregatik etorri zen azkoitiarra ospakizunera.


Orain, 2020an, eraiki duten kioskoa 1925ekoaren ia berdina da, haren egitura eta estetika berbera du. Txikixeagoa. Esteban Orbegozo enpresari



1925 arte Oriko plaza pilota lekua izan zen, errebotean jokatzeko.



Plaza benetako arrantzaile portua zen XX. mende hasieran.



Ganadu ferian, astoak lotzeko posteak, Kolon Txiki aurrean.

ezagunak eraiki zuen, Zumarragako siderurgiako enpresa ezagunaren sortzaile eta jabeak. Halaxe esan zigun Juan Luis Amilibiak: "Gure aitonaaren laguna zen Orbegozo; hark altxatu zuen plazako kioskoa". Aiako Santiagoerreko Arrazubi Aldekoa baserrian jaioa zen Esteban Orbegozo. Haren iloba zen Luis Alde harri-jasotzaile eta ardogilea.

Jorge Oteiza plazan kioskoa jartzearen kontra agertu zen. Hala esan omen zuen: "Ez dakit markesina hori altxatzeko, herrian toki hoberik ba ote den, baina okerragorik seguru ezetz!". Plaza hutsaren edertasun estetikoak galtzeak hutsunea sortuko zion, seguru asko; edo, beharbada, kioskoa jartzeak errebote-jokoaren amaiera zekarrelako zen Oteizaren mina, aspaldiko

tradizioari ateak ixten zizkiolako. Ordura arte han jokutzen zuen Oriko errebotetaldeak, Villabona, Zubietara eta Iparraldekoekin. Eta taldearen buru eta sustatzaile nagusia Oteizaren osaba zen, Bittor Enbil.

Iritziak iritzi, plaza hura zen jendearentzako topaleku ia bakarra herrian, elizatik kanpo. Aterpe handi haren babesean denetik izan zen; lehenengo



1930ean, Bittor Enbili omenaldia Iparraldeko pilotari lagunek.



Zazpi zutabe alde bakoitzean. Haurrak autoaren aldamenean.



1957an, Luis Alde 16 arrobako harria jasotzen. Plaza, gainezka.



Eskolastikanean, Jose Mari erretegia, Oliden pasteleria, Karmenen arrandegia eta Txoko taberna.

urteetan, baserritarren ganadu feria, hileko azken larunbatean. Baserritar asko inguratzen zen, beren asto, behi, txerri eta zaldiekin. Txerriak Anjeleriyouneko arkupeetan jartzen zituzten, itxitura baten barruan. Gerora hasi zen ostegunetako denetariko azoka, oraindik ere badirauena.

Azokaz gain, nagusiki, musika eta dantzarako gunea izan da plaza. Bandaren garaian, igande arratsaldero izaten zen musika, eta herritarrak baltsean. Han elkartzen ziren bertako eta inguruko herrietako gazteak eta ez horren gazteak. Gerra ondoko garairik gogorrenetan, aguazila makilarekin ibiltzen zen mutil koskorren atzetik,

baten bat neskari lotuta ikusiz gero, jo egiten zuen “ospa hemendiki!” esanez. Mutilek txistu joz ematen zioten abisu elkarki, “kontuz, bazetorrek-eta!”. Aguazilik ez zenean, mutilak, binaka, baltsean ari ziren neskengana joaten ziren dantza-eske, “faborez”.

Udarako gau batzuetan komedianteen funtzioa izaten zen. Aguazilik bandoa jotzen zuen aurretik: “gaur gauean komediantek plazan”. Telebistarik gabeko garai haietan, jende asko joaten zen plazara. Batzuk, etxeko sukaldeko aulkiekin; beste batzuk plazako bankuetan jartzen ziren eta, gainerakoak, haien atzean tente. Denetik

izaten zen komedianteen funtzioan: txerpolaria hizketan, pailazoa, kantariak, dantzariak, trapezistak..., eta batez ere errifa. Anjel Linok oraindik gogoan du urte batean oso konpainia ona etorri zela, izar nagusi Kosmin ipotxa zuena: “Hiru egunerako etorri eta aste osoa pasatu zuten, plaza gauero ikuslez gainezka”.

Estropada bezperan, eguerdian, arraunzaleak batzen ziren plazan, egurrezko astoen gainean behekoz gora jarritako traineruaren bueltan. Arraunlari izandako beteranoek, txapela buruan, lapitz-hautsaz egindako ukendu magikoa ematen zioten txalupari, zapi batekin;



Benito Lertxundi, Jose Migel Loidi, Jose Mari Alberdi eta Migel Illarramendi, plazan atletismoan.

biharamunean olatuetan azkarrago txirristatuko zen ontziak segundo batzuk irabazteko. Bandera irabaziz gero, igandeko alironean plazan bukatuko zen larunbatean plazan hasitako arraun festa.

Bestelako jardunak ere asko aterpetu ditu Orioko plazak, erreboterako itxi zenetik. Hain zuzen, Bittor Enbili omenaldi hunkigarria egin zioten Iparraldeko lagunak 1930eko abuztuaren 10ean, han herriz herri errebotea zabaltzen egindako lanaren esker onez. Ikusmin izugarria sortu zuen Luis Aldek 1957an jokatu eta irabazitako apustuak, 5 minutuko saioan 16 arrobako harriari (200 kilo) 5 altxaldi

pertika, luzera-saltoa, hiruko jauzia eta korrika errelebotan. Benito Lertxundi, Jose Migel Loidi, Jose Mari Alberdi eta Migel Illarramendi oriotarrak nagusitu ziren.

Bertso eta kantu saioak ere, nola ez, izan dira hainbat aldiz. Handik pasatu ziren garaiko bertsolari onenak: Uztapide, Basarri, Lasarte, Xalbador... Benitok berak ere emana du kontzertua plazan, albotik pasatzen ziren automobilen zaratak amorratuta. Herrian sortu zen aurreneko rock taldea ere, Haika, Orioko plazan plazaratu zen.

Jose Artetxe idazle azpeitiarraren 1950eko *Mi viaje diario* liburuan artikulua bat



Txistulariak herriko festetan. Jendea apain-apain jantzita.

emanez. Eulogio Gurrutxagak, 71 urterekin, kanabeteko enborra moztu zuen 1984ko sanikolasetan. 1959an, Zumaia, Getaria eta Orioko gazte talde bana atletismoan lehiatu ziren:

dator Orioko plazaz, holako hitzekin: "Niretzat Orioko ederrena hango plaza da, Gipuzkoako politenetakoa, politena ez bada. Lasaitasun giroa ematen dit, baretasun sentazioa: kareharrizko udaletxe xumea, dema-harria, sarek betetako gurdia, mahoizko galtzez eta txaketa urdinez jantzitako arrantzaleak, patxadan hizketan ari den apaiza, moilara igotako txalupa behera begira jarria..."

Igande arratsetan, inguruko sagardotegietako parrietan erretzen jarritako arrainen usain sarkorrarekin batera, arrantzaleen kantuak hedatzen direnean, ahots lodi eta pausatuan, hango baretasunak goia jotzen du. Eta lasaitasun hori dastatzen denean, momentu horren betetasuna arimaren barru-barruraino txertatzen zaigu. Zenbat maite dudan nik Orioko plaza! Han, orduak behar bezala igarotzen dira, sarritan haren gainean hegan doazen kaioen hegaldi patxadatsua bezalaxe".

Ez litzateke txarra, iraganean bezala etorkizunean ere, poetaren batek antzeko zerbait sentitzea Orioko plazari begira. ■



Karta
Pintxo tradizionalak
Okindegia



Palota Kalea, 5 · 20810 Orio · Egin erreserba 943-53 61 27

**MENDIZABAL
AROTEGIA**

Neurriko armairuak eta egurlanak

Altzerri bidea, Beti-Alai etxea · AIA-ORIO
943-83 11 75 · 645 70 84 91
mendi@arotzgi.net



**2020-2021
ikasturteko
aurrematrikula**

- Eskola nahasi- en aukera (aurrez aurrekoa edo online)
- Irakasle filologoak edo/eta esperientzia duten natiboak

**Informa
zaitez!**

Talde txikiak
Hainbat hizkuntza
eta maila



Eusko Gudari 29 · ORIO · 943-83 11 16 · 648 97 64 70
info@narau-school.com · www.narau-school.com

Oreka
fisioterapia

Eusko Gudari, 54 · 943-13 35 37

Ekografia muskulo-eskeletikoa
Eskuzko terapia · Talka-uhinak
Masaje terapeutikoa · Osteopatia



**Orioko
Herri
Ikastola**

Herri Onurako Kooperatiba

Abeslari kalea, 8
943-83 47 04
Fax-a: 943-13 09 38
orio@ikastola.eus
www.oriokoikastola.eus



PERTSIANAK
aluminioa
motorrak
automatismoak
konponketak

600 70 52 27 · 943-13 29 01
pakoimaz@hotmail.com · ORIO



%100 etxean egina
**PIZZERIA
KALETA**

Arrantza kalea, 10 943-24 89 46



Portu
Erreteta - Jantokia

Kazolita, baserriko oilaskoa,
parrillako errekiak, eguneko menua...

Santio Erreka auzoa, z/g · AIA
943-89 44 34

**ZINKU
ERAIKUNTZAK**

- Igeltserotza orokorra
- Etxebizitzaren erreformak
- Teilatuak
- Sukalde, komunak, etb.
- Eraisketak

deitu eta eskatu aurrekontua
konpromisorik gabe

Ander Zinkunegi
667 74 02 79

Festa egitaraua bertan behera gelditu bada ere, Orion eta Aiako Andatza auzoan ospatu al dituzte San Pedro jaiak herritarrek?



ARKAITZ IRURETAGOIENA

San Pedro eguneko meza bakarrik ospatu dugu auzoan, COVID-19ak zaildu egin duelako antolaketa. Normalean, auzotarrek, enpresek eta tailerrek ematen diguten dirulaguntzari esker antolatzen ditugu jaiak, eta aurrez ezin izan dugu diru bilketarik egin. Gainera, festa eginez gero, babes neurri zorrotzak bete beharko genituela bagenekien eta, egoera aztertu ondoren, festa batzordeak erabaki genuen aurrez jaiak bertan behera uztea. Pena handia ematen digu, sanpedroak Andatzako auzotarren bilgune garrantzitsua izaten direlako. Oilasko-biltzea, esaterako, oso ohitura polita da. Urtean behin bada ere, auzoko baserriak zeharkatzen ditugu kalejiran, eta oso gustura hartzen dute auzotarrek bisita. Hurrengo urtean festa ospatzea espero dugu.



SHUA LARRAÑAGA

Ez ditugu ospatu sanpedroak herrian, eta kuadrilarekin ere ez dugu bazkari edo afari berezirik antolatu egun horietarako. Nik neuk faltan bota ditut herriko jaiak, giro polita sortzen delako. Bi urte beteko dituen haurra daukagu, eta asko gustatzen zaizkio buruhandiak, erraldoiak, musika eta jaia. Benetan gozatzen du festa giroaz, eta urtean zehar ere, askotan joaten gara Kultur Etxera Pello eta Nikolasa ikustera. Iaz, esaterako, oso gustura ibili zen umea batukadaren erritmoan dantzan, eta aurrez nagusiagoa denez, ederki pasako lukeela badakit, baina ez da festarako aukerarik izan COVID-19a dela eta. San Pedro eguna, gainera, lainotua argitu zuen; herrian bueltatzea eman genuen eta oso lasai zegoela antzeman genuen, ez zuen San Pedro eguna ematen.



XABIER GAITON

San Pedro eguneko meza nagusian abestu genuen Salatxoko kideok, eta elizkizunaren ondoren kontzertutxoa ere eman genuen elizan bertan. Sei abesti eskaini genituen; hiru organoarekin, eta beste hiru a capella. COVID-19aren krisia dela eta, entseatzeko aukera gehiegi izan ez badugu ere, gogo onez hartu genuen kontzertua emateko gonbidapena. San Pedroak bezala, beste hainbat festa ere bertan behera geratu dira, tartean sanferminak. Ni Pasai Antxokoa naiz, eta San Fermin jaiak bereziak dira guretzat. Gainera, nire familia nafarra da, eta urtero joaten gara Iruñara sanferminetara. Pena ematen dit jaiak bertan behera uzteak, baina uste dut ezinbesteko neurria dela bizi dugun egoera honetan. ■



GOBERNATZEKO PREST

MIREN GORROTXATEGI Lehendakari hautagaia

<http://mirengorrotxategi.eus>



Mende erditik gora olatu gainean

Hemendik gutxira 55 urte beteko dira oriotar batek aurrenekoz surf egin zuenetik. Ramon Esnal 'Etxeberri' izan zen olatu berri hura hartu zuen lehen herritarra, hondartzan soroslea zen garaian. Herrian surfa nola errotu zen jakiteko saiakera egin du KARKARAK, argazki zaharren hari muturrei tiraka.

Testua: **Iñigo Gaiton.**
Argazkiak: **Joxeju Olasagasti,**
Martin Murgiondo eta
Joxemari Zalduak
utzitakoak.

Ramon Esnal *Etxeberri*, Eugenio Cotado, Joxeju Olasagasti eta Jose Antonio Azkue. Gehiago edo gutxiago, guztiak jardun ziren surfean 60eko eta 70eko hamarraldietan. Ordutik itsasaldi asko joan direla eta, elkarrizketatuek nahastuak dituzte gertaera konkretu batzuen data zehatzak. Hala, historia zehaztasunik gabe idaztea ekinaldi nahikoa kamutsa denez, herriko jendea surf egiten hasi zen garaiko istorio sorta bat bildu da erreportajea.

Aurreneko surflaria

“1965 edo 1966an hartuko nituen aurreneko olatuak, ingelesei erosi nien taularekin”, hasi da hizketan Ramon Esnal, *Etxeberri*. 1964tik 1971ra bitartean sorosle lanetan jardun zuen Antilla hondartzan, uda garaian. “Basatia zen hondartza. Ia urtero izaten genuen hildakoren bat”.

1964an, ingeles taldetxo bat etorri zen kanpinera. Esnalen esanetan, haiek izan ziren Orion surf egin zuten aurreneko atzerritarrak. “Martin Fowles eta konpainia, elkarren lagunak egin ginen. Hurrengo urtean, dirua nahi baino lehenago bukatu zitzaizela eta, surf taulak saltzeko intentzioa zutela esan zidaten. 2.500 pezetatan hiru ohol erosi nizkien. Lanpernatara joan behar izan nuen dirua biltzeko. Orduan, hilean 6.000 pezetako jornala irabazten nuen sorosle lanagatik, eta erdia Mariñela jatetxean joaten zitzaidan, bazkaritan. Hogei duro kostatzen zen eguneko menua”.

Bost bat urtez jardun zuen Esnalek surfean. “Udan baino gehiago negu aldean, neoprenozko jantzirik gabe. More-more eginda ateratzen nintzen uretatik. Hala ere, ez ginen oso-oso sarri ere ibiltzen. Tarteka, Katxiñako Jose ere sartzen zen uretara nirekin”.

Egun batez, Iñigo Letamendia —gerora Pukas etxea sortuko zuen donostiarra— hurreratu zitzaion. “Hark bazekien zerbait guri buruz,

eta Afrikan eta Portugalen hartutako olatuen berri eman zigun. Atzeritik ekarritako kristoren surf pelikulak zituela eta, Aginagara gonbidatu gintuen filmak ikustera. Hangoa zuen bikotea, Marian Azpiroz”.

Parentesia: idiak

Esna! Uretan zebilen batean, Jose Etxeberria, *Lizargate*, hondartzaraino hurreratu zen idiekin, animaliak ibiliz urizkinan hankak bustitzera. “Ikaragarri ona zen pare hura”, gogoratu da Esna. “Josek eta biok elkar ezagutzen genuen, eta nigana gehiegi gerturatu zen, itsasaldera, eta olatu kolpe batek idiak harrapatu eta barrura eramane zituen. Uztaututa zeuden animaliak, haien makakorroak! Uretan aurrera joanda, hankekin ez zuten hondorik jotzen, baina igerian-edo, urazalean mantendu ziren nolabait. Gutxinaka, urizkinara eramatea lortu genuen, eta, azkenean, onik atera ziren”. Lehorrean hankak jarri orduko, txistu batean alde egin zuten idiek hondartzatik.



Hurrengoak

Joxemari eta Patxi Zaldua, Agustin Lizaso, Anjel Lopetegi, Jose Luis Arin, Tiburtzio Arostegi, Santiago eta Igancio Ugarte, Jose Mari Salsamendi... Ramon Esna!en ondoren, urte gutxira, zerrendako lagunak ere hasi ziren olatuak hartzen, Eugenio Cotadok dioenez. “Esna!en lagun ingelesek taulak hemen uztea erabaki zuten hurrengo urtera arte, haraino eramatea garestia zelako, eta nire gain laga zuten haiek zaintzeko ardura. Ohol haietako batekin hartu nituen aurreneko olatuak, 11 urte nituela. 15 kilotik gorako pisua izango zuen. Neoprenoak traierik ez nuen, nylonezko kamiesta batekin sartzen nintzen uretara, parafinak urratuak ez egiteko. Berehala harrapatu ninduen sentsazio hark: olatu gainean hartzen zen abiadura, adrenalina, beldurra...”.

Aurreneko txapelketak

Juan Antonio Azkueren memoriaren arabera, 1972an edo 1973an egin zen Orioko aurreneko surf txapelketa. “Leihaketa baino gehiago, festa moduko zerbitzu izan zen, herrian surfa ezagutzera

Joxeju Olasagasti beso zabalik, olatu gainean. Antilla hondartza, 1977.urtea.



Joxemari Zaldia surf egiten. Antilla hondartza, 60ko hamarraldiaren amaiera edo 70ekoaren hasiera.

Joxeju Olasagasti, Itxastresnarekin. Antilla hondartza, 1977.urtea.



emateko. Zerbait egin behar zela eta, huraxe egin genuen. Surflariak eta bainulariak elkarren artean nahastuta gogoratzen ditut, denak pilan. Nahikoa gauza librea izan zen. Zarauztar batzuk ere etorri ziren antolaketarekin laguntzera. Gure surf maila nahikoa kaskarra zen orduan, eta beno, hantxe ibili ginen zerbait egin nahian. Sekula surfean aritu gabekoren bat ere sartu zen uretara. Gauza berria zen kirol hura”.

Agustin Lizaso izan zen txapelketako garaile. Handik bizpahiru urtera edo, beste bat antolatu zuten, apur bat serioagoa. “Bitoriano Olidenek irabazi zuen. Olatuak eskuinaldean hartu genituen, harrobi aldean, eta epaileak arroketa eserita egon ziren. Ordurako maila hobexeagoa genuen, eta olatuan denbora gehiago egiten genuen zutik; maniobraren bat edo beste ere ikusi zen uretan”.

Bi leihaketa horiek bakarrik egin ziren herrian, Orioko Surf Taldekoek 1996an lehendabiziko txapelketa *ofiziala* antolatu zuten arte.

Bizi postura aldatzeraino

Azkue azkar kateatu zuen surfak. “Niretzat erakarpen indar handia zuen olatuen arteko mundu hark. Garaia ere halakoa zen: gartzetasuna, surfak berarekin zekarren bizi estiloa, askatasun nahia... Egia esan, orduko gizartean zaila zen afizio hura justifikatzea. Gainera, etxe onekoa izan behar zen orduko surflariak bezala ibiltzeko, batera eta bestera, egun guztian olatuen atzetik”. Haien belaunaldian surfak ez zuen inoren eguneroko bizitza irauli, baina hurrengoetan bai. “Iñigo Timon eta horiek zer bizimodu zuten ikusten nuenean, nire bizitza ereduaren inguruko zalantzak sortzen zitzaizkidan”.

Zarauzko kuadrilla batek Mundakara eraman zuen Azkue 16 urte zituela, astea pasatzera. *Grumette* deitzen zioten, taldeko gazteena zelako. “Oraindik inozentzia galtzeko nuen, eta bidaia hartan harrapatu ninduen surfa biltzen zuen guztiak; hippy-en mobidarekin bat egiten zuen hark guztiak, apurtzailea zen. Gogoan dut zarauztar bat azidoa —LSD— janda atalaiaiko zuhaitz batera igota... Hura mundua!”.



Joxeju Olasagastiren kasuan, surfa udako jostaketa izan zen hiruzpalau urtez, ez gehiago. “Errioa, frontoia eta hondartza ziren gure jolastokiak, eta surfa denbora pasa aparta zen udarako. Etxean kristoren matraka eman eta gero, amak Itxastresna bat erosi zidan”.

Itxastresnak

Patxi Olidenek herriari emandako guztia ondo ezaguna da. Gehiegi luzatu gabe, primeran ulertu daiteke surfari egin zion ekarpena Olasagastiren adierazpenekin: “Patxiri esker, kuadrillako guztiok lortu genuen surf taula bat. Kanpotik ekarritakoak ikaragarri garestiak ziren, ordainezinak guretzat, eta hari zor diogu surfa probatzeko aukera eduki izana”.

Cotadok balio handiagoa eman dio denborarekin Patxik egindakoari. “Errespetu handia genion. Beti ikasten jarduten zuen, pazientzia ikaragarriarekin. Haren tailerrean ikusi nuen aurreneko aldiz ordenagailu bat. Momentuan ohartu ez arren, Patxik lezio onak eman zizkigun”.

Surflari onak herrian

“Kanpinera etortzen zen hawaiiar batek harri eta zur laga ninduen. Harekin ikusi nuen zer zen benetako surfa!”, dio oraindik ere harrituta Cotadok. “Taula nahi bezela mugitzen zuen hankapean, batera eta bestera, zirt eta zart. Jeff Hakman surflari profesionala ere inoiz ikusi izan nuen Orion; Mundakan ezagutu genuen elkar”.

Uretan ikusi duten surflari onena zein den galdetuta, Azkuek eta Olasagastik etxeko erreferentzia eman dute aho batez: Iñigo Timon. “Umetan hasi zen surfean, amak hondartzan lan egiten zuelako, eta berehala atzeman genion talentu berezia. Fenomenoa zen. Hondarretan eserita gogoratzen dut neure burua, Timoni begira. Guretzat itsasaldia handiegia zelako uretara sartzen ez ginenetan, hark kristoren olatuak hartzen zituen”, azaldu du Olasagastik.

Beste maila batean, erreferente modura Joxe Mari Zaldua ere aipatu dute. 1973an Zarautzen egindako txapelketa batean parte hartu zuen Zalduak, eta emaitza ona lortuta itzuli zen etxera.

Eugenio Cotado uretatik ateratzen, errioan, ahateak dauden tokiaren parean, surf egin ondoren.

Martin Murgiondo, Joxeju Olasagasti eta Juan Antonio Azkue Mundakara egindako bidaia batean. Orioko tren geltokia, 1977. urtea.

**OLASAGASTI:
"BAPOREETATIK
HARTUTAKO
NEOPRENOEKIN JOAN
GINEN MUNDAKARA"**

**AZKUE: "1972AN EDO
1973AN EGIN ZEN
HERRIAN AURRENEKO
SURF TXAPELKETA"**



Surfa galarazita

Egun batez surf egitea galarazita egon zen Orion. Hala azaldu du Cotadok: “Zarauzko bi soroslerekin gorabeheraren bat gertatu zen, eta lanera gehiago ez etortzea erabaki zuten. Orduko alkateak, Aiestaranek, bi guardia zibil jarri zituen sorosle lanetan, arazoari irtenbidea emate aldera. Berehala esan ziguten guri: *Esta prohibido entrar al agua con esas piraguas...* Akabo gure gozamena! Hurrrengo egunean, hondartzara triste antzera joan ginen, eta bi lagun ikusi genituen uretatik atera ezinik. Surf taulak hartu eta erreskatatu egin genituen; guardia zibilak ziren. Handik aurrera, uretan nahi bezala ibiltzeko baimena eman ziguten”.

Emakumeak uretan

“Orain, poz handia hartzen dut neska txikiak neoprenozko jantziekin eta taulekin ikustean. Lehen ez zen halakorik, hemen behintzat ez; gizonetakoak ibiltzen ginen olatu artean, halakoa zen gizartea”, azaldu du Cotadok. Hala ere, bazen tarteka olatueta irristaka ibiltzen zen emakume bat herrian. “Don Jose Lacadena orduko medikuaren alaba bat, Maria Jose, oker ez banago. Hark Zarauzkoa zuen bikotea, surflaria hura ere, eta oso tarteka surf egiten zuen”. Ziurrenik, bera izango omen da surf egin zuen herriko aurreneko emakumezkoa.

Mundaka amets(gaizto)

Mundakara buelta batzuk egindakoak dira Cotado, Azkue eta Olsagasti. Gazte garaian trenez egiten zuten bidaia, eta haraino iristeko egun osoa behar izaten zuten. Paradisuaren antza zuen ezker olatu luze hark. “Mundakako surflariak beso zabalik hartzen gintuzten, sano-sano. Surfa eta laguntasuna, biak bat dira niretzat, garai haietan bizitako esperientzia ederrengatik”,

gogoratu da Cotado. “Ez dut ahaztuko han hartutako aurreneko olatua: zilipurdika erori nintzen! Mundaka olatu bikaina da, baina oso exijentea, eta guk erabiltzen genituen Itxastrenak ez ziren oso egokiak han ibiltzeko”.

Olsagastik ere senperrenak ikusi zituen behin. “Atalaiara iritsi ginenean olatu oso politak ikusi genituen; uretara sartutakoan, ordea, hark guztiak beste dimentsio bat hartu zuen. Halamoduz hiru olatu hartu ondoren, laugarrengoan erori eta taulak alde egin zidan. Ikaragarri kosta zitzaidan igerian moilaraino hurbiltzea”, gogoratu du. “Orduko neoprenozko jantziek ere ez zuten asko laguntzen. Mundakako argazkietan ikusten diren jantziak, adibidez, San Jose eta Reina Maria baporeetatik hartu genituen —eskatu gabe—. Egun hark oroitzapen txarra laga zidan; gauak, ordea, bikaina!”.

Juan Antonio Azkue, Joxeju Olsagasti eta Martin Murgiondo neoprenoak jantzi eta uretara sartzeko prestatzen. Mundaka, 1977.urtea.

Pello Olsagasti, taula gainean zutik, olatuan irristaka. Antilla hondartza, 1977. urtea.

Azken olatuak

Azkuek duela hiruzpalau urte hartu zituen azken olatuak, “Mikel Agotek egindako taularekin”. Gaur egun, oraindik ere ikaragarri gozatzen du hondartzaraino hurreratu eta surflariei begira; “batez ere, tartean surfean txukun egiten duenik bada”.

Cotado ere garai bertsuan sartu zen uretara azkenekoz, lagunarteko erronka txiki bat irabaztearren: “Denborarekin, bizitzan beste gauza batzuk probatzen joaten zaren heinean, gorputza ere makaldu egiten da, eta uretan ez duzu gaztetako gozamen bete-bete hura esperimentatzen. Hala ere, niretzat lehengo urteak ez dira hobeak oraingoan aldean. Zaharrak eta berriak, garai denak dira desberdinak; garai denak dira onak”. ■■■



Juan Antonio Azkue Tiki markako surf taularekin eta Joxeju Olasagasti Itxastresnarekin. Antilla hondartza, 1977. urtea.




GIPUZKOA PASSPORT

Uda Gipuzkoan gozatzeko pasaporte





Jaso zurea Turismo Bulegoetan

www.gipuzkoaturismoa.eus

#VisitGipuzkoa

Betiko izaerari eutsi dio Sarasua erretegi eraberrituak



Xarma berezia duen erretegia da Sarasua inondik ere, bost hamarkadetan zehar herritarrekiko gertutasuna izan baitu bereizgarri nagusi. Uztailean beteko du mendi erdia, eta bide berria abiatu du Joseba Etxezarreta eta Lide Yereguien eskutik. “Tradizio handiko erretegia da Sarasua eta, horregatik, gure asmoa izan da Sarasua familiaren lekukoa hartzea, haiek egindako lana aitortuz eta hamarkadetako tradizioari eutsiz, baina, aldi berean, erretegiari gazteok eman diezaiokegun ukitu berritzailea gehituz”.

Kartan, esaterako, zenbait berrikuntza egin badituzte ere,

Sarasuaneko betiko eskaintza mantendu dute, “bezeroek ikus dezaten lehen bezala jan dezaketela, lehengo prezio berean. Hala ere, nahi duenarentzat eskaintza bereziagoa ere badugu”.

Dekoraziori dagokionez ere, erretegiaren betiko izaerari eutsi diote gazteek, eta berrikuntza batzuk eginda, xehetasun txikiekin itxura eraberritua hartu du espazioak, jantoki argitsua eta giro atsegina lortuz.

Esperientzia eta gaztetasuna uztartuz

Joseba Etxezarreta eta Lide Yeregui gazteak badira ere,

eskarmentu handia dute ostalaritzan. Lehenengoa tradizio handiko erretegiaren bueltan jaio eta hazi zen. *Katxiñakoa* da Etxezarreta, eta haurra zenetik ezagutu eta bizi izan du erretegi baten eguneroko martxa, bere amak 40 urtez lan egin zuelako bertan. Hala, lan munduan egin zituen lehen urratsak beste sektore batean izan baziren ere, duela hiru urte sortu zitzaion umetatik ezagutu zuen parrila lanbidetzat hartzeko grina Etxezarretari. Horretarako, azken hiru urteetan Katxiña Upategian aritu da parrilan, arrain eta haragi erretzeko sekretuak ikasten, eta segituan konturatu zen parrila zela bere bokazioa. Oso zorrotza eta detailezalea da bere lanean, eta asko zaintzen ditu produktuaren kalitatea eta plateren aurkezpena.

Betiko Katxiña erretegia itxi zenean sortu zitzairen Etxezarretari eta Yeregui beren proiektu propioa

**SARASUA
ERRETEGIKO
TXULETA OSPE ONA
HARTZEN ARI DA**



abiatzeko gogoia. “Bion ametsa izan da beti elkarrekin proiektu bat abiatzea. Nik Deustuko Unibertsitatean Komunikazio gradua ikasi nuen, baina beti gustatu izan zait ostalaritza. Hain zuzen, gradu amaieran jatetxe bat sortzeko proiektua aurkeztu nuen. Horregatik, ilusioz gainezka gaude helburua lortu dugulako”.

Erretegia irekitzeko erabakia, ordea, ez zen egun batetik bestera hartutakoa izan. Aukera desberdinak aztertu zituzten Etxezarretak eta Yereguik, eta parrila ezinbesteko baldintza zenez, ez zen lan erraza izan toki aproposa aurkitzea. “Sarasua erretegia hartzeko aukera egokitu zitzaigunean, gure neurria egindakoa zela iruditu zitzaigun. Historia

handiko erretegia da, parrila du eta txikia da, lehen aldiz negozio propioa abiatu nahi duen gu bezalako bikote gaztearentzat neurria egindakoa. Gainera, Nekane Sarasua beti ondoan izan dugu laguntzeko prest, eta eskerrak eman nahi dizkiogu egin duen ahaleginagatik”.

Harrera ona

Otsailean ireki zuen erretegi berria bikoteak, baina aste gutxira, koronabirusaren krisiaren eraginez, ixteko agindua jaso zuten. “Horregatik, maiatzean berriz ireki genuenean zerotik hasia bezalakoa izan zen guretzat. Zorionez, oso harrera ona izan dugu herritarren artean, eta pozik gaude betiko bezeroek ez

dutelako aldaketa nabarmenik antzeman”. Izan ere, kalitateari garrantzia handia ematen diote Sarasua erretegian, baina prezio lehiakorrak izaten jarraitzen dute. “Badakigu Orion badagoela parrila eskaintza oso ona, baina askotan prezioa igo egiten da, bisigua edo erreboiloa moduko arrainak garestia direlako. Horregatik, gu saiatzen gara kalitate bera eskaintzen moduz dauden produktuak eskainiz. Hala, muxarra da gure berezitasuna, baina horrez gain, eskaintzen ditugu txuleta, bisigua eta erreboiloa ere. Txuleta gainera, ospe ona hartzen ari da bezeroen artean”. Hala, arraina eta txuleta parrilan jan nahi duenarentzat Sarasua erretegia da aukera aproposa. ■

Musikaren dohain mentala

Etenaldi luze baten ondoren, Do Re Ni elkarteak berriro helduko dio musikak zahartze aktiboan duen eragina ikertzeko proiektuari. Hil honetan boluntarioak bildu nahi dituzte, eta estimulazio saioak abuztuaren bukaeratik urriaren hasiera bitartean egingo dituzte.

Testua: **Aritz Mutiozabal.**
Argazkiak: **Aritz Mutiozabal**
eta **JM Bielsa.**

Do Re Ni elkarteak abiatu duen ikerketak bide gorabeheratsua izan du, bai dirulaguntzen aldetik, bai COVID-19 birusak baldintzatutako egoeragatik, baina ustekabeek ez dute ekimenaren sortzaile Xabier Lizasoren asmoa eten. Hasieran 200 boluntarioekin egiteko asmoa bazuen ere, orain 60 lagunetara murriztu du kopurua, eta bi urteko ikerketa izan beharrean hilabete pasatxo iraungo du, abuztuaren 31tik hasita. Helburua, ordea, hasierako bera izango da: garunaren garapenerako musika garrantzitsua dela frogatu nahi du Do Re Ni elkarteak eta, zehazkiago, adineko jendearen zahartze aktiboan laguntzeko tresna baliagarria dela.

Do Re Ni eskolaz kanpoko formatu batekin hasi zen, eta ekintza horietan ohartu zen Lizaso musikak kultura arlotik harago zerbait gehiago bazuela: “Mirari txikiak ikusita, konturatu nintzen ez zela kasualitatea”. Lantzen ari zenaz interesatuta, Lizasorekin harremanetan jarri zen Osakidetzako Barakaldoko Osasun Mentaleko buru Jose Manuel Lopez Bragado. “Hark komentatu zidan erresonantzia magnetikoa azaldu zenean, duela 22 urte inguru, oso datu miresgarriak agertu zirela. Esan zidan garunak askoz ere lan gehiago egiten duela lo gaudenean, begiak itxita ditugunean eta musika egiten gaudenean. Horrek pixka bat utzi ninduen deskolokatuta”. Zientifikoki emaitzak ikusten zirenez, aukera sortzen bazen, ikerketa bat egiteko prest agertu zitzaion medikua Lizasori.



Duela urtebete ETB1eko *Ur handitan* saioak erreportaje zabal bat eskaini zion Do Re Ni elkarteari, eta bertan beraien jardunaren eta mezuaren berri eman zuten. Handik bi egunera, Gipuzkoako Foru Aldundian bilera bat izan zuten zuzendari batekin, eta hark esan zien diputazioa “kezkatuta” zegoela Gipuzkoa oso zaharra bihurtzen ari zelako. “Aldundikoak esan zidan gure emaitzak frogatzen baldin bagenituen zientifikoki Gipuzkoan, serio murgilduko zirela gaian. Benetako erabaki bat hartzeko emaitza indartsu bat behar zutela, alegia”, kontatu du Lizasok. Nolabait esateko, hori izan zen ikerketaren abiapuntua.

Nahi baino txikiagoa

Proiektuan murgiltzera animatuta, 200 boluntario lortzeko deialdiak egin zituzten, hala nola, Orion, Zarautzen eta Donostian. Diseinatutako hasierako ikerketa garatzeko lau dirulaguntza eskatu zituzten, baina azkenean bi bakarrik jaso dituzte; 60.000 euro, guztira. Ondorioz, nahi baino ikerketa txikiagoa egin behar izango dute. Gainera, atzeratzen joan da guztia: “Iazko azaroaren 25ean hastekoak ginen, baina laguntzak ez ziren ateratzen, eta urtarrilean jaso genuen erantzuna. Orduan, apirilaren 14rako jarri genuen data, eta tartean pandemiak harrapatu gaitu. Orain, abuztua bukaeran hasiko gara”.

Guztira, 30 estimulazio saio egingo dituzte 60 urtetik gorako pertsonekin, eta saio horietan “aztarna bat” lortu nahi dute. “Bi parametro neurtuko ditugu test zientifikoak eginez: bata,

Joseba Goiburu eta Jose Manuel Urkizu boluntarioak, Xabier Lizaso proiektuko arduradunarekin.



Lizaso, Orion egindako aurkezpenean.

**"AITZINDARIA ZEN ETA
OSO INTERESGARRIA
IRUDITU ZITZAIDAN",
ESAN DU PARTE
HARTZAILE BATEK**

**KOMISIO TALDE BAT
SORTU DUTE
JAURLARITZAN
PROIEKTUARI
JARRAIPENA EGITEKO**

kognitiboa, ia ezinezkoa izango dena, eta bestea, psikiatrikoa, hori askoz ere errazagoa. Estimulazio saioak egin aurretik eta ondoren egingo ditugu test horiek, Lopez Bragado medikuak gidatuta, jakiteko ikerketak eragina izan duen ala ez, edo zenbateraino eragina izan duen”.

Horretarako, bi talde osatuko dituzte. Batzuek estimulazio taldean hartuko dute parte; dantza, kantua eta antzerkia landuko dituzte alderdi ludiko batetik, eta musikal bat sortzen ariko dira. Beste taldeak, aldiz, hasierako eta bukaerako

azterketetan hartuko du parte, baina tartean ez du ekintzarik egingo. Abuztuaren 31n hasiko dira estimulazio saioekin, eta urriaren 4an bukatuko dute. Musikalaren emanaldiak urriaren 2an, 3an eta 4an eskaintzeko asmoa dute.

Boluntariok berriro bildu

Aurretik 70 oriotarrek eman zuten izena ikerketan, baina uztailean berriro ere jendea biltzen hasi nahi dute. Horretarako, aurkezpen bilerara deitu dute hilaren 9rako, Salatxo aretoan, aurretik izena eman dutenentzat, baina baita izena eman nahi duten berrientzat ere. Bi saio egingo dituzte –bata, 18:00etan eta, bestea, 19:00etan–, eta batera edo bestera joateko izena eman behar da aurrez Kultur Etxean, goizeko ordutegian. Bileran izango dira estimulazio saioez arduratuko den Asier Sota aktorea, Jose Manuel Lopez Bragado medikua eta Xabier Lizaso bera.

Joseba Goiburu eta Jose Manuel Urkizu ikerketan parte hartuko duten bi boluntario-laguntzaile dira, eta ilusioz daude proiektuari berriz ekiteko. Jakinminak bultzatuta animatu ziren egitasmoan parte hartzera. “Aitzindaria zela jakinda, oso interesgarria iruditu zitzaidan”, esan du Goiburuk: “Azken finean, hau herri ekimen bat da, bertako jendea sozializatzeko, kasu honetan, adinekoak”. Beraiek jar dezaketen hondar aleak gizarteari ekar diezaiokeen onura orokorragatik hartuko dute parte.

“Behin adin batera iristen zarenean, beti sortzen zaizu kezka, alzheimerre dela edo bestea dela... Ikerketa honek zerbaiterako balio dezake, agian guretzako ez, baina bai gure ondorengoentzat”, adierazi du Urkizuk. “Momentuz, ideia da proiektu txiki hau egitea, baina zerbait handiagoa izateko esperantzarekin”, gaineratu du.

Badirudi adin jakin batetik aurrera dantzan egin, kantatu edota antzerkia egiteak lotsa ematen diola norbanakoari. Boluntarioen esanetan, proiektu honek kontrakoa bultzatzen du: “Ba, gu bezala, oso abilak ez garenak dantzan, eta noizbait jende aurrean lotsatuko ginatekeenak, musikal bat egitera animatzea. Hor dago aurrerapausoa. Hori da proiektu honen gakoa”.

Eusko Jaurlaritzak Creadis 3-Smart Creative Districts proiektuaren barruan sartu du Do Re Ni elkartearen egitasmoa, kultura, osasuna, ongizatea eta ikerketa zientifikoa uztartzen dituelako; arlo ezberdinek bat egiten dutelako egitasmo bakar batean. “Do Re Ni-ren helburuetako bat hori da, musika domeinu ez musikaletan erabiltzea, ikusi delako tresna honek sekulako gaitasuna daukala”, zehaztu du Lizasok.


Kognitiboki aztarna bat topatzeko lau urteko ikerketa bat behar dela dio musikariak, eta hori bideratzeko bi milioi euroko aurrekontua behar da. Horrelako inbertsio batean murgiltzeko ondo pentsatu behar denez, jaurlaritzak ikerketa hau egiteko eskatu die. “Komisio talde bat sortu dute jaurlaritzan proiektuari jarraipen bat egiteko, eta frogatu nahi dugu Euskal Herrian gai garela horrelako ikerketa potente bat egiteko”. ■



Uztailaren 9an, proiektuaren aurkezpen bilera egingo dute Orion, boluntario gehiago biltzeko.

**merezi
duzun
herria**

ehbildu



**MADDALEN
IRIARTE
OKINENA**

maddalen

ZURE LEHENDAKARIA

Lehen paladetatik banderak irabaztera egindako bidea

Orioko emakumeek arraunean egindako ibilbidea bildu dute ikus-entzunezko lan batean. Aurten emango da argitara Orio AEn eta Mondragon Unibertsitatearen arteko elkarlanetik sortu den dokumentala.

Testua: **Iñigo Gaiton**. Argazkia:
Aiora Larrañaga
Solaberrieta.

Unibertsitateko hiru ikaslek Orio, emakumea eta arrauna hartu zituzten ardatz karrera amaierako proiektua egiteko. Xabier Sukia OAEko zuzendaritzako kidea harritu egin zen gaiaren berri izan zuenean, hiru gazteak barnekaldekoak direlako. “Nerea Aginagalde eta Eider Moncayola Bergarakoak dira, eta Iñigo Soraluze, azkoitiarra. Iaz estropalariak egindako denboraldi bikainak edo piztuko zien arreta, beharbada”, azaldu du. Ikasleek haren gidaritzapean egin dute ikus-entzunezkoaren lanketa, eta Joxe Mari Olasagastiren laguntza ere izan dute. “Dokumentazioan ekarpen ikaragarria egin du Olasagastik. Harrigarria da benetan jasota duen artxiboa”, zehaztu du Sukiak. Iratz Urkizuk ere parte hartu du proiektuan, pasarte batzuetan irudiei off ahotsa ipiniaz.

14 testigantza

Orio AEk 14 apostoluen proiektua abiatu zuen urte hasieran, oraindik dokumentala egiteko ideiarik ez zutenean, herriko emakumeek arraun munduari egindako ekarpenaren aitortza modura. Gerora, biak uztartzeko aukera sortu zitzairen, eta dokumentalean, apostoluen kontzeptua 14 estropalariren testigantzak bilduz gorpuztea erabaki zuten.

Belaunaldi desberdinetakoak dira filmean parte hartu duten arraunlariak: Ainhoa Gozategi, Leire Alustiza, Maite Lazkano, Agurtzane Astigarraga, Naiara Campos, Marijo Salsamendi, Sara Peña, Jaione Goikoetxea, Eder Etxeberria, Kristina Korta, Rosa Atorrasagasti, Itziar Olasagasti, Nadeth Agirre, Garazi Oliden.

Gidoiak lau atal nagusi ditu, eta modu kronologikoan egin da errelatoa: hastapenak, aurreneko estropadak nazioartean, traineruaren sorrera, iazko denboraldi historikoa...

Emozio uneak

Xabier Sukiak jakitera eman duenez, emozio uneak izan dira dokumentalaren sortze prozesuan: "Filmarekin hasi aurretik, abenduan, 14 apostoluen proiekturako argazkiak egin genituen arraunlariekin, eta, orduan, aspaldian elkar ikusi ez zuen kuadrillatxoak juntatu zen.

Elkartze hutsa oparia izan zen haientzat. Gerora, dokumentalerako grabaketetan binaka elkartu ditugu arraunlariak, garaiaren arabera, eta malkoren bat edo beste izan da, aspaldiko kontuak gogora ekartzean".

Aurkezpena

Oraindik ez dute datza zehatzik filmaren estreinaldirako. "Ikasleek uztail amaierarako aurkeztu behar dute lana unibertsitatean; hortaz, laster bukatzea aurreikusten dugu. Jendaurreko aurkezpenari dagokionez, oraindik ez dugu ezer erabaki. Zerbait polita izatea gustatuko litzaiguke, herriko jendea, protagonistak eta arraunzaleak elkartuko dituen ekitaldi edo antzeko zerbait, baina oraindik airean dago dena. Litekeena da udari pasatzen utzi eta udazken aldean aurkeztea", kontatu du Sukiak. ■



Kristina Korta eta Eder Txeberría dokumentala grabatzen, Arraunetxan.

GRABAKETAN BINAKA ELKARTU DITUZTE ARRAUNLARIAK, ETA "MALKOREN BAT EDO BESTE EGON DA"



arkitektura

herrikobarra, 11 behea • ZARAUTZ • 943-13 43 58

www.xsarkitektura.com

eraikuntza zerbitzuak
eraikinen mantenua
errehabilitazioak
proiektuak
txostenak
ITE-ak
obrak





BAZKIDE EGIN NAHI DUZU?
Deitu telefono zenbaki honetara
943-83 53 98
MENUAK EMATEN DIRA
Herriko Plaza, 1

"Jarraipena egiten dugu, ikasle bakoitzaren beharrak identifikatzeko"

ALEX PAREDES NARAU HIZKUNTZA ESKOLA ETA ITZULPENGINTZA AGENTZIAREN SORTZAILEA

2019ko apirilean ireki zituen atear NARAU School & Translations-ek, eta ordutik herriko hainbat haur, gazte eta heldu ari dira bertan atzerriko hizkuntzetan trebatzen. Akademia berria bada ere, Alex Paredesek eta Janet Del Rosariok, eskolaren sortzaileek, eskarmendu handia dute hizkuntzak erakusten. Filologoak dira biak formazioz, eta unibertsitateko irakasleak ere izan dira.

Zer eskaintzen du NARAU School & Translations-ek?

NARAU-n bi lan lido jorratzen ditugu. Batetik, hizkuntza eskola gara, eta ingelesa, frantsesa, alemana eta japoniera lantzeaz gain, gaztelaniako eta literaturako errefortzu eskolak ere ematen ditugu, batez ere Bartzilergoko ikasleentzat. Ikasleen beharretara egokitutako ikastaroak eskaintzen saiatzen gara beti. Hala, taldekako ikastaroak, irailetik ekainera bitartean, asteen bi edo hiru ordukoak izaten dira, baina ikastaro trinkoagoak ere antolatzen ditugu, denbora tarte txikian hizkuntza-ziurtagiriren bat eskuratu nahi duten ikasleei zuzenduak. Horrez gain, bakarkako klaseak ere ematen ditugu, eta normalean helduek edo errefortzua behar duten haur edo gazteek aukeratzen dute modalitate hori.



Bigarren lan esparrua itzulpengintzaren arloa da; itzulpen teknikoak egiten ditugu nazioarteko bezeroentzat, eta zinpeko itzulpengintza zerbitzua ere ematen dugu.

Zein da erabiltzen duzun metodologia?

NARAU-n hizkuntza jorratzerakoan lau trebetasunak lantzen ditugu: idatzizko nahiz ahozko adierazpena, eta ulermena, beti ere komunikazioaren ikuspegia ardatz hartuta. Gainera, atzerriko hizkuntzearen bueltan dagoen unibertso kulturala helarazten ere saiatzen gara ikasleei. Dena dela, lan egiteko modua zehazterakoan, oso garrantzitsua da ikasleen helburuak kontuan hartzea; horregatik, helburu amankomuna duten ikasleek osatutako taldeak egiten saiatzen gara, ikastaroak pertsonalizatuak izan daitezen. Gertuko harremana dugu familiakien, eta ikasle bakoitzaren jarraipena egiten dugu, bakoitzaren beharrak

identifikatu eta neurriria egindako ikastaroak osatzeko.

Garrantzitsua al da atzerriko hizkuntzak ikastea?

Ikastea beti da aberasgarria, eta egungo mundu globalizatuan, ezinbestekoa bihurtu da atzerriko hizkuntzak menderatzea. Dena dela, ezagutzeaz gain, uste dut hizkuntzen ikasketa prozesuak berak adin tarte bakoitzari onura desberdina ekar diezaiokeela. Haurren kasuan, trebetasun linguistikoak jorratzeaz gain, ikasteko ohituretan oinarri sendoa eraikitzen lagundu dezake. Izan ere, haurren gaitasunak ondo landuz gero, gaztetatik atzerriko hizkuntza oso ondo jakitera iritsi daitezke. Gaztetxoei, bestalde, lehiakorragoak izaten laguntzen die atzerriko hizkuntzak menderatzeak. **Ikasleak prestatzen al dituzue hizkuntza-ziurtagiriak gainditzeko?**

Bai, gaur egun, gaztetxoek artean ingelesa da lehen atzerriko hizkuntza, eta aipatu nahi nuke Cambridgeko azterketak prestatzeko zentro homologatua garena. Beraz, ikasleak Hizkuntzen Europako Marko Bateratuak zehazten dituen hizkuntza-ziurtagiriak gainditzeko prestatzen ditugu, hizkuntza maila egiaztatzen duen ziurtagiria izatea oso garrantzitsua baita lan munduan murgiltzeko. ■



Excellence with a *Smile*


Denontzat Hizkuntza Eskola, Orion

- Tituludun eta esperientziadun irakasleekin
- Zure helburuetara egokitzen diren ikastaroekin
- Eta zure ikasketen laguntzeko gogo handiarekin

Gure Itzulpen Agentzian hizkuntza konbinazio desberdinen itzulpena eta kokapena kudeatzen ditugu: testu teknikoak, kalitate-eskuliburuak, enpresen idatziak, webguneak, softwarea, aplikazioak, iragarkiak, zinpeko itzulpena eta askoz gehiago...

NARAU Hizkuntza Eskolan...

- Bost urtetik aurrerako haurrentzako eskolak ditugu. Baita gazte eta helduenzat ere.
- Ingelesa, frantsesa, alemana, japoniera eta gaztelera erakusten ditugu.
- Gure taldeak txikiak dira.
- Zure beharretara egokitutako banakako ikastaroak ere eskaintzen ditugu.
- Oporraldian ikastaro trinkoak ere baditugu.
- Enpresekin eta erakundeekin lan egiten dugu.
- Azterketa Ofizialak prestatzen lagunduko dizugu.



We prepare for

Cambridge

English Qualifications

**MATRIKULAZIO
EPEA IREKITA DAGO
2020-2021
IKASTAROA**

Informa zaitez!

Ikastaroaren hasiera 2020ko irailaren 14an izango da

www.narau-school.com

📍 Eusko Gudari 29 · ORIO · ☎ 943-83 11 16 · 📞 648 97 64 70

✉ info@narau-school.com



Hemen da Udan Elkar Zaintzen

Azken denboraldian, herrian, zurrumurru ugari entzun dira Txurrunumski KAGE-ren inguruan. Udan antolatzen diren udalekuak izan dira hauen epizentro; ea burutuko diren, bertan behera geratuko diren... COVID-19ak guztion egunerokotasuna eta norantza hankaz gora jarri ditu, tartean, elkartearena. Egoeraren aurrean, orokorrean guztiok izan dugun antzerako informazioa eta ezjakintasuna izan ditugu guk ere. Hasiera batean, gauza zegoen bezala ikusita, udako udalekuen etorkizuna oso beltz ikusi genuen, zerbait aurrera eramateko argi izpirik gabe.

COVID-19a ate joka izateak, guztion bizitzetan geldialditxo

bat nagusitzea eta erritmoa jaistea ekarri du. Aldiz, herri mailan, elkartek, inoizko mugimendu, produkzio... handiena nabaritu du beharrei dagokienez esparru askotan. Hala nola, ekonomikoan, kulturean, sozialean, pertsonalean... Hau guztia hautemanda, aisialdi taldean zerbait egitera behartuak ikusi gara, herriko familien beharrak ahalik eta ondoen asetzea helburu hartuta.

UDAN, EGOERA BERRI HONETARA EGOKITZEN DEN PROIEKTUA PLAZARATZEA ERABAKI DUGU

Horretarako, udari begira, egoera berri honetara guztiz egokitzen den proiektu berri bat plazaratzea erabaki dugu: Udan Elkar Zaintzen zerbitzua. Urte askotan zehar herriko haurren aisialdirako alternatiba edo berau behar bezala asetzeko zerbitzu libre ezberdinak eskaintzeaz arduratu den talde bat izan gara beste hainbat gauzen artean. Baina, oraingo honetan, pandemiak utzitako egoera kontuan izanik, benetan zaintza zerbitzu baten beharretan aurkitzen diren familietara soilik zuzentzera behartuak ikusi gara. Zertan aldatuko da, beraz, udako eskaintza? Emango dugun zerbitzua, parte hartu nahi duen ororentzat librea izan

HAUXE BAI JENEROA!



beharrean, haurra zaintzeko beste baliabiderik ez duenarentzat izango dela. Izan ere, herritarrei zerbitzu hau eskaintzearekin batera, garrantzitsuena guztion osasuna eta segurtasuna bermatzea iruditzen zaigu.

Orain arte ez dugu informazio gehiegi partekatu herritarrekin, jakina den moduan aste batetik bestera egoera izugarri aldatu da, eta udalekuen egoera eta planteamendua ere halaxe joan dira. Behin zer bide hartuko genuen argi edukita, udalarekin harremanetan jarri ginen eta proiektu berria behar bezala bideratzeko ezinbestekoak izan zaizkigun argibideak jaso genituen berehala.

Zailtasunak zailtasun, martxan da Udan Elkar

Zaintzen zerbitzua, gogotsu heldu diogu erronka berri honi, kontzientziazio handiz eta familiei laguntzea xede hartuta. Xamurra izan ez bada ere, egoeraren xehetasun guztiak medio, irizpide egokienak aurkitzen saiatu gara ahalik eta behar gehien aseko dituen proiektu bat aurrera eramateko.

Hala eta guztiz ere, Txurumuski KAGE-ko kideok eskerrak eman nahi dizkiegu herriko haur, gaztetxo zein gurasoei, gudan beti jartzen duzuen konfiantzak horrelako proiektuak bideratzeko indarra ematen digulako. Ez dugu inolako zalantzarik denon artean jarrera arduratsua eta beharrezko kontzientziazioa izanik, guztia ezin hobeto irtengo dela! ■■■

NIRE HONETAN



IÑIGO EXPOSITO

(Auto)kontrola

Kalera irten. Behatuta sentitu. Kale kantoi bakoitzak begiak balitu bezala. Etxe atariak jaso du kalera atera garenaren seinalea. Iritsi omen gara plaza inguruko zebrabidera. Hara! Tren geltokira bidean omen gara. Hala dirudi; edo... hala esan omen digute. Nik hala entzun dut, behintzat. Nora joango ote gara ordu hauetan? Zertan ari ote dira?

Krisialdi gogorrean murgildu gara, baina urte oparoa ere izaten ari da beste zenbaitentzat. Eta atek parez pare zabaldu zaizkio kontrol sozialari. Udaberriarekin batera loratu da.

Etengabekoa da. Orduro. Minutuero. Segunduero. Inork ez digu agindu besteak kontrolatzea, baina gero eta gehiago egiten dugu. Kontrolatu eta epaitu. Testuinguruan jarri gabe. Hausnarketarik egin gabe. Oro har, gainera, modu txarrean. Besteak zertan ari diren arduratzen gaitu.

Besteak zertan ari diren epaitu behar dugu. Norbera zertan ari den erreparatu gabe.

Pentsa dezagun une batez. Zertan bilakatzen ari gara? Saia gaitzen geure burua kontrolatzen. Autokontrola. Egiten duguna hausnartu dezagun zergatik egiten dugun. Ez dezagun egin besteak egiten dutena.

Pentsatu. Sentitu. Egin. Ez gaitzala inertziak gizatasunaren gainetik eraman. ■■■





ZINGIRA ESKOLA

"Bizimodu lasaia dute zaldiek"

PELLO SAIZAR ZALDI ZALEA

Aurreko ikasturtean, Pello eta bi zaldi etorri ziren bisitan eskolara. Gurdian pasioan ibili ginen. Orain nola dauden jakin nahi izan dugu, baita zaldien inguruko zenbait bitxikeria ezagutu ere.

laz bi zaldirekin batera etorri zinen bisitan Zingirara. Zuk uste duzu gustura egon zirela?

Bai, nik hori sumatu nuen. Aldi berean, ni ere oso gustura egon nintzen. Zaldiak oso lasai egon ziren eta hori gustura ziren seinale da. Pozik egon ginen denok.

Zer moduz daude orain?

Primeran daude, egun guztia zelaian, nahi dutenean jan eta edaten dute. Bizimodu lasaia dute, zaldi batek eskatzen duen modura.

Noiz eduki zenuen lehengo zaldia, eta nola zuen izena? Zenbat urterekin hasi zinen zaldian bakarrik ibiltzen?

Baserrian betidanik genituen astoa eta behorra, *Bonita* izena zuen. Lehendabizi, 6-7 urterekin asto gainean ibiltzen ginen. Tarteka, behorraren gainean ere ibiltzen ginen aitonarekin, afizio handia zeukalako.

Orain daukazun zaldiek nola izena dute?

Indar, Edil, Luka, Ekaitz, Laida, Norki eta Osaba Txiki.

Zertara jolasten dira zaldiak?

Zaldiak, nahikoa jan eta tripa beteta dutenean, beraien artean elkarri igurtzika eta masajeak



ematen ibiltzen dira hortzaka egingo balute bezala baina minik eman gabe. Aspertuta daudenean alde batera eta bestera korrika ere ibiltzen dira jolasten.

Zenbatekoa da behorren haurdunaldia? Jaio eta noiz hasten dira ibiltzen gutxi gorabehera?

Haurdunaldiak 11 hilabete inguru irauten ditu. Jaio eta 5 minutura hasten dira altxatzeko saiakerak egiten, baina oraindik ez dute indarrik, eta balantzaka hasten dira. 15 edo 20 minutura, tente egoteko gai dira.

Non erosten dira zaldien gurdia? Bide luzeak egin daitezke?

Bide luzeak egin daitezke, bai, egunean 50 kilometro egin daitezke lasai asko. Gurdia Huelvatik ekarri nuen, hemen ez dago ohiturarik eta han, Andaluzian, bai.

Mila esker, Pello! ■■■

"GURDIA HUEL VATIK EKARRI NUEN, HEMEN EZ DAGO OHITURARIK ETA"



JURA AZKUE
NAIA YARZA

Nola aldatu den mundua

Inoiz pentsatu al duzue zein azkar aldatzen den mundua?"

Lehen, informazioa aurkitzeko liburuak erabiltzen ziren, baina orain mugikorra erabiltzen dugu. Gure ustetan, arropa ere pixka bat aldatu da. Adibidez, kamiseta tiranteduna lehen azpitik bakarrik eramaten zen beroa sentitzeko, eta guretzat kanpotik eramatea ere eroso da.

Lehen, bidaiatzea zailagoa zen, normalean jendeak kotxerik ez zuelako. Baina, guk uste dugu, bidaiatzen zutenean abentura handiagoa izaten zela. Eta bidaiatik zerbait ekartzen zutenean, askoz gehiago zaintzen zutela.

Kontsolak edo Youtubeko bideoak ere ez zeuzkaten. Aldi berean, umeak beste gauza askorekin jolasten ziren: txapekin, makilekin, harriekin, botilekin... Garai hartan umeek askoz gehiago erabiltzen zuten beraien imajinazioa.

Lehen, argazkiak ateratzen zituztenean, askoz lan handiagoa zen. Denbora luzez geldi egon behar zuten, botoia sakatu eta gero ezin zen ikusi zer agertzen zen, eta asko itxaron behar zen argazkiak errebelatu eta lehertzeko. Baina, hori guztia pasa eta gero gehiago zaintzen zituzten. Argazkiak altxorrek ziren.

Inoiz pentsatu al duzue zein azkar aldatzen den mundua? Orain arte egon diren aldaketa guztiekin, nolakoa izango da etorkizuna? Oso desberdina, seguru. ■■■

Gazia II



GARBIÑE MANTEROLA

Han goitik itsasoa ikusten da, Julen Gabiriaren liburuaren izenburua da. Martxoaren azkenetan esaldia moldatu egin nuen: *Hemen goitik itsasoa ikusten da*. Etxeko lantoki inprobisatu berrian nengoen eta halako batean silla bat hartu eta gainera igo nintzen. Leihotik urrutira begiratu eta aparra ikusi nuen. Bizarra, pipa eta kataloxa falta zitzaizkidan pelikuletako faro zaintzaile bat bihurtzeko. Barraren kontrari olatuak lehertzean itsasoa ikustea lortu nuen. Hura estanpa nirea! Itxialdi guztian ordenagailuko mahaiaren parean izan dut silla hori. Egunero errepikatu dut faro zaintzailearen ariketa. Itsasoaren gaziaz gozatzen lagundu dit, baita izter eder hauek indartzen ere, bide batez.

Zenbat deskubrimendu ekarri digun itxialdiak. Gure buruaz, gure inguruaz. Gauza txikiak, gertukoak.

Ur gazia omen da arazo handi guztientzat erremedio: malkoa, izerdia, itsasoa. Azken hilabeteetan ospitaleetako pasilloetan eta etxeetako sukaldeetan makina bat malko isuri ditugu. Izerdi franko bota beharrean gaude itxialdiaren ajeari aurre egingo badiogu. Lana erruz egin beharko baita. Eta itsasoa zer?

Itsasoak bakea, sosegua, dibertimendua ekarriko digu. Gogoratu besterik ez dugu. Oriotarrak arrapaladan joan gara itsasaldera ateak ireki dizkigutenerako. Manifestazio ordenatuak egin ditugu, ordutegi kapritxosoetan. Batzuk goizeko 6etatik 10etara. Besteak 10etatik 12etara. Txikienak 12etatik 19etara. Azkenak 20etatik 23etara. Izan dira bost minutu lehenago ateratzen zirenak, hamar minutuz libertatea luzatzen zutenak. Baina guztiok izan ditugu hondartzako espaloi estuetan segurtasun distantziak gordetzeko lanak. Itxialdiak *itxasoaldia* ekarri digu.

San Pedro eguna da gaur. Bart ez dut tronpetarik jo. Zutabe hau idatzi nahi eta ordenagailuko karpetan, orain hiru urteko iritzi artikulua topatu dut. Gazia zuen izenburu, eta nire buruari erronka bat botatzen nion. Txikira enbidoa: umezaroko uda zoragarriak errepikatzea urterten batean. Atzerriko opor exotikoak alde batera utzi eta txikia nintzenen bezala jokatzeko, *Xuai gainaren* bi aldeetan bukatuko balitz bezala mundua. Orio-Zarautz-Orio. Zarautz-Orio-Zarautz. Putzutik putzura entretenitzea eta azala gatzaz zartatuta izatea San Juan berde eta Euskal jai egun bitartean. Enbido hari gaurkoan erantzuna ematea tokatzen da: jaso.

Aurtengoan urrutiko intxaurrek lau besterik ez dirudite, gertukoak berriz hamalau. Ederragoak, hobeagoak dira gure bazterrak. Aurtengoan *infiniOri* urtea da, zerumuga hemen bukatuko da. A ze gozamina. A ze gazimina. ■■■

**ZENBAT
DESKUBRIMENDU
EKARRI DIGUN
ITXIALDIAK**



Sagasti
LEIHOAK

Tel. 943 13 00 77 - Fax 943 53 71 50
sagasti@sagastileihok.com
Arrantzale kalea, 65
20810 Orio

Roberto Sagasti

Kalitazteko materialak
PVC eta aluminioa · Isolamendu termiko eta akustikoa
Salmenta osteko zerbitzua

www.sagastileihok.com

SU KIA
TABERNA · JATETXEA

Eguneko menua
Asteburuetakoa
Oilaskoak eramateko
Ogitartekoak
Plater konbinatuak
Terraza ederra
(alboan umeentzako parkea)

Abaromendi 38, behea 1
ORIO · 943-89 21 29



Seguros Bilbao

Santi Barranco
Orioko Ordezkarria

Endaia Enparantza, 1 · ORIO · sbarranco@segurosbilbao.com
943-11 16 00 · 688 71 48 69



Zaraguetza IPI
HERRI ESKOLA 2-16

943-89 40 52
012137aa@hezkuntza.net



Sinergia
fisioterapia eta ikerkuntza

Ibai ondo, 1 behea · ORIO
943-13 05 77 · 685 71 85 95
sinergiafisioterapia.com · f i

- **Lesioak:** bihurdurak, tendinitisiak, zaintiratuak, kontrakturak, hanka handituak, artrosia, kirugia osteko birgaitzea, bizkar hezurreko arazoak, arnas gaixotasunak haur eta helduetan, lesio neurologikoak, haurdunaldi-rako tratamendu bereziak, erditze ondorengo errekupeazioa.
- **Tratamenduak:** terapia manuala, osteopatia, masajeak, drainatze linfatikoa, arnas fisioterapia, kinesioaping-a, pilates, abdominaletako gimnasia hipopresiboa (GAH), REDCORD.

BIYONA
BERRIKUNTZAK-BARNE DISEINUA

etxea sukaldeak
bainugela ...
leihok etxeko altzariak
eraberritzekotan?



Bisita gaitzazu

 Abendaño poligonoa, 2 · ZARAUTZ · ☎ 943-13 50 16 · www.biyona.net

Euskara eta merkataritza



TESTUA: USOA ZULAIKA

Inork lehenago hau gertatuko zela kontatu izan baligu, ez genukeen sinetsiko, baina egun batetik bestera etxetik atera ezinik aurkitu gara. Presaka bizi garen honetan, bat-batean gelditu beharrak, eta egoera noiz arte luzatuko den ez jakiteak, beldurak azaleratu dizkigu. Egoera hau ez da erraza, eta etxe bakoitzeko bizipenak anitzak izan dira.

Guzti honetatik alde ona ere atera dugu, erritmo berrira egokitu gara eta gauza txikiez disfrutatzen ikasi dugu: otorduak familian, partxis partida bat, bizilagunekin hartu-emana sendotu... azken finean, gauzak patxadaz egiteko nahikoa denbora izan dugu. Gure etxeko txikien jarrera ere txalotzekoa izan da; haurrek ere familia giro honen beharra zuten antza denez, presak eta betebeharrak alde batera utzita.

Dena dela, faltan bota dugu sozializatzea. Euskaldunon izaeraren parte da, kaleko bizitza, komertzio-tabernen inguruan sortzen den hartu-emana, gertukoa, euskalduna. Hiru hilabete luzez gure kaleak triste, ilun ikusi ditugu. Eta kaleko bizitza hau galtzearekin batera, zenbait herritarrek euskaraz egiteko aukera zapuztuta ikusi dute. Itxialdi

osoan euskaraz hitz bakar bat ere egin gabe. Izan ere, zenbaitentzat oso garrantzitsua da kalera irtetea euskarari bide emateko, eskolan, lagunekin parkean, tabernetan, erosketak egiterakoan...

Zorionez, pixkanaka berriro dena martxa hartzen hasi da, komertzioek pertsianak igo eta kalera zabaldu dira, bezeroak hartzeko irrikaz... bertatik bertara. Herritarrok itxialdian hainbeste desio izan dugun interaktuazio hori berreskuratzen ari gara. Dendek, taberne eta zerbitzuek indarra eman diote herriari, eta kaleak berriro lehengora itzultzen ari dira, koloretsu, eta euskaraz.

Herriko denden helburua gertutasuna eskaintzea da, kalitatezko produktuak eta zerbitzuak eskaintzen ditugu, eta konfiantzazko arreta ere bai “...hemen ez baina zoaz ondoko kalera eta halako dendan aurkituko duzu nahi duzuna” esaten dugu askotan;

**ZENBAITENTZAT OSO
GARRANTZITSUA DA
KALERA IRTETEA
EUSKARARI BIDE
EMATEKO**

“eraman biak etxera eta probatu lasai...” edo “...saiatuko naiz eskatzen didazun hori lortzen...” hauxe da gure denda txikiek eskaintzen diguten balio erantsiaren adibide bat.

Herriko komertzio guztiak ez dira zabaldu, ordea. Badira bidean geratu direnak ere.

Azken urteetan erosteko ohiturak aldatzen ari dira, eta horren aurka egitea ez da erraza. Begi bistakoa da min handia egiten ari dela tokiko merkataritza. Norberaren aukera da herrian kontsumitzea, baina komertzio txikien biziraupena kolokan jartzen ari gara. Pixkanaka gure dendak ixten ari dira, eta itxialdi hau zenbaitentzat erabakiorra izan da.

Oriok mantentzen du bertakoa babesteko izaera hori. Adinekoek dute herrian bertan erosteko ohitura gehien, baina hainbat gazteengan ere ikusten da jarrera hau, eta txalotzekoa da. Hori da indartu behar duguna. Egoera honek gogoeta bat egiteko aukera eman digu, komertzio txikia zaindu behar dugu, geure kaleetan kontsumitzeak onurak dakartzalako herritar guztiontzat, eta modu horretan gure ohiturak, kultura eta hizkuntza ere babesten ditugulako. ■

Egin zaitez KARKARA laguntzaile

Zergatik KARKARA laguntzaile?

- Nire herriaz kalitatezko eta gertuko informazioa jasotzen jarraitu nahi dudalako. Hilero nire etxean eta uneoro **karkara.eus**-en.
 - Euskaraz bizi nahi dudalako eta euskararen biziberritzea bultzatu nahi dudalako.
 - **KARKARA**laguntzailearen abantailez gozatu nahi dudalako.
- KARKARA**laguntzaile izateko deitu **688 85 96 82** zenbakira edo idatzi **karkara@karkara.eus** helbidera. Urteko kuota: 36 euro.

Ekaina-uztaileko
KARKARA laguntzaile
zozketak:

Orioko Arraunketa
Elkarte
Kamiseta



Errigora

3 otar
2 pote tomate, 2 pote menestra eta 2
pote orburu.

PARTE HARTZEKO:

Deitu 688 85 96 82 zenbakira edo idatzi **karkara@karkara.eus** helbidera. Parte hartzeko epea gaurtik ekainaren 26tik uztailaren 20ko eguerdiko 12:00ak arte. Irabazlearen izena KARKARAko hurrengo zenbakian argitaratuko da. KARKARA laguntzaile eta KARKARA laguntzaile berrientzat bakarrik.



“Ikasi dut gure adinekoak zaintzea inoiz baino beharrezkoagoa dela”.

José Luis Elosua
NAGUSILAN

Adinekoak. Gure adinekoak inoiz ez dira gaur bezain ‘gureak’ izan. Eta zaindu egin ditugu, ahaztu gabe gure gizartearentzat zer esanahi daukaten. Eta beti pentsatuz egunen batean gu beraiek izango garela.

#AurreraEgitekoGogoratu


Asko ikasi dugu.
Ez dezagun ahaztu.

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa




ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro


Marratz itzazu lauki zurietan falta diren irudiak,
dominoak zentzua izan dezan.



XOMORROAK DOMINOAN

Itzala

Zein da
Maripurtzilen
itzal zuzena?



Hamabikoa

Neska-mutilok ikasgelatik atera eta
liburutegira doaz sokari helduta...




Labirintoa

JRR...
zzzzZZZZ
GRRRR...
ZZZzzzzzz
GRROR

sekuentzia



Aurkitu labirintotik ateratzeko bidea, sekuentziari jarraituz. Gogoratu laukian banan-banan aurreratu behar direla, ezker, eskuin, gora edo behera eginez, baina inoiz ez diagonalean. Pasa dituzun laukietako hizkiak batu eta esaera zahar bat osatuko duzu, irudiko neskato lotiari oso ongi ematen diona, bide batez esanda. Puntu grisak hitzen arteko tarteak irudikatzen du.



Idatzi
hemen
esaldia.

...BAINA HORI
NESKENTZAT DA,
EZTA?

...eta hemen, berriz, liburutegitik ikasgelara bueltan datoz. Aurki itzazu bi irudien arteko aldeak. 12 dira guztira.



Soluzioak ikusteko:
www.plazanbazan.eus/

AGENDA

UZTAILA

10 OSTIRALA

Bertso-saioa: Maialen Arzallus eta Jon Maia. Errikotxia bertsozale elkarteak antolatuta.
Zimitorioan, 19:00etan.

15ETIK 30ERA. ASTEAZKENETIK IGANDERA

Euskal Zirkoa.
Mendibeltz ondoko parkean, 19:30ean.

17 OSTIRALA

Kontzertua: Iñigo Asensio.
Arraunetxan, 20:00etan.

19 IGANDEA

TKE estropadak: Eusko Label eta Euskotren liga.
12:00etan.

21 ASTEARTEA

Uretako puzgarriak.
Ikastola ondoko arranplan, 17:00etan.

24 OSTIRALA

Kontzertua: Petti.
Arraunetxean, 20:00etan.

ABUZTUA

4 ASTEARTEA

Ipuin-kontalaria: Ines Bengoa.
Kultur Etxe atzeko Balea plazan, 17:00etan.



5 ASTEAZKENA

Filma: Asterix, Edabe magikoaren sekretua.
Hondartzan, 22:00etan.

7 OSTIRALA

Kontzertua: Oreka TX taldea.
Herriko Plazan, 20:00etan.

12 ASTEAZKENA

Antzerkia: Patata Tropikala taldea.
Herriko Plazan, 17:00etan.

15 LARUNBATA

Emanaldia: Juan Mari Beltran musikariaren *Kostaldeko Soinuak*.
Herriko Plazan, 20:00etan.

18 ASTEARTEA

Uretako puzgarriak.
Ikastola ondoko arranplan, 17:00etan.

19 ASTEAZKENA

Filma: Gora Etxebeste!
Herriko Plazan, 22:00etan.

22 LARUNBATA

Kontzertua: Howdy Bluegrass taldea.
Endaia plazan, 20:00etan.

28 OSTIRALA

Filma: Glass.
Herriko Plazan, 22:00etan.

29 LARUNBATA

Sardina-pintxoak eta sagardoa.
Trikitixaz girotuta.
Ikastola ondoko plazan, 19:00etan.

Kontzertua: Manez eta kobreak taldea.
Herriko Plazan, 20:00etan.

IRAILA

4 OSTIRALA

Filma: Mia Leon blanco.
Hondartzan, 22:00etan.

IRAGARKI SAILKATUAK

ALOKAIRUA

Logela alokagai. Etxebizitza berria eta logela handia, ohe handiaren, mahaiaren eta armairuaren. Etxeak 30 metroko terraza du. Tel.: 652 55 15 50.

LAN BILA

Ume zaintzan lan egiteko prest dagoen neska oriotarra naiz. Tel.: 676 44 13 27.

Emakume gazte bat lan bila. Pertsona helduak eta haurrak zaintzeko prest eta baita garbiketa lanetarako ere. Berehala lanean hasteko moduan. Tel.: 642 69 60 38.

Emakume venezuelar bat bere zerbitzuak eskaintzeko prest. Jende helduarekin ospitalean egiteko prest, egunez eta gauzez. Tel.: 688 61 04 52

Lan bila nabil, etxe garbiketarako egiteko prest. Tel.: 641 44 60 70.

Lan bila nabil etxe garbiketarako eta haurrak zein helduak zaintzeko. Orduka lan egiteko. Tel.: 643 66 23 89.

Etxeko lanak egiteko edo zaintzan lan egiteko prest nago. Tel.: 631 82 44 52.

Neska arduratsua lan bila dabil. Barneko zein kanpoko langile bezala adineko pertsonak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest. Karlene. Tel.: 631 87 86 59.

Lan bila dabilen emakumea naiz. Bikaina naiz haurrak zaintzen, eta garrantzi handia ematen diot garbitasunari eta bukontasunari. Arduratsua naiz, eta arreta handia jartzen dut nire lanean. Berehala lanean hasteko prest nago. Tel.: 602 08 98 86.

Etxeko eta zaintza lanak egiteko prest nago. Esperientzia dut eta arduratsua naiz. Lanerako gogoz nago. Wendy. Tel.: 612 46 42 43.

Lan bila nabilen neska bat naiz. Haurrak edo adineko pertsonak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest nago. Barneko zein kanpoko langile bezala, edo orduka. Esperientzia eta erreferentziak ditut. Samanta. Tel.: 643 85 78 54.

Neska euskalduna naiz eta lan bila nabil. Udaran umeak zaintzeko eta etxeko lanetan laguntzeko prest nago. Arduratsua naiz eta oso alai, eta umeekin esperientzia ere badaukat. Berehala lanean hasteko moduan naiz. Harremanetarako kontaktua: 656 73 51 03

Orion astelehenerik ostiralera haurrak (6-12 urte) zaintzeko bere burua eskaintzen du 17 urteko gazte arduratsua. Ekainaren 1etik aurrera hasteko aukera. Uztailaren 15a arte. Orduetara: 9-13h (haurreko/eguneko 10€). Aukera ere bazkaltzen emateko, 9-15h (haurreko-eguneko 15€). Gehienez 3 hurrez osatutako taldea. Julen. Tel.: 688 62 45 73.

Orion, batxilergoko lehen urtea amaitu berri duen gazteak bere burua eskaintzen du klase partikularrak emateko, bai ikasturte amaierari begira, baita udarako errefortzu gisa. 9-12 urte bitarte. Ekainaren 1ean hasteko aukera. Orduko 8€. Julen. Tel.: 688 62 45 73.

Aiako 17 urteko neska, Orioko baita Aiako umeak zaintzeko prest, orduetara malguarekin. Haurrekin esperientzia duena. Saioa. Tel.: 672 19 49 94.

LAN ESKAINTZA

Langile baten bila gabilta pertsona heldu baten zaintza eta etxeko lanak egiteko. Derrigorrezkoa da gidatzeko baimena eta paperak edukitzea. Tel.: 656 73 55 19.

ETXE BILA

Familia bat gara. Hiru gela dituen etxe baten bila gabilta. Tel.: 661 33 11 13.

Neska oriotar bat etxeko alokatu nahian. Tel.: 677 28 95 21.

SALGAI

Olaciregi txipironera salgai. Suzuki DFIS motorra. Abendura arte aseguria ordaindu du. 3.500 euro. Tel.: 657 77 45 11.

Volkswagen California T-5 salgai. Tel.: 670 42 09 66.

BESTELAKOAK

Land Rover Defenderra erosi nahiko nuke, berdin du zer egoeratan dagoen: ITVa pasa gabe, kolpeekin, aberiatura... Tel.: 623 17 95 37.

Garaje itxi bat erosi nahiko nuke kotxe bat sartzeko tokiarekin. Herri erdialdean edo goiko kalean. Tel.: 666 18 41 69.

Portugeseko ahozko mintza praktika hartu nahiko nuke ingelesaren edo euskararen truke. Tel.: 691 34 48 56.

Orion bizi den familia bat autokontsumorako baratze ekologiko bat egiteko lurzoru baten bila dabil alokairuan Orion edo inguruan. Tel.: 657 71 96 14.

Bigarren eskuko mountain bike bizikleta erosiko nuke. Interesatuek, idatzi edo deitu KARKARAra.

Duela bi aste belarririk galduta nuen Ibai Ondo auzotik anbulatortara bidean. Mesedez, norbaitek bilatzen badu, deitu hurrengo telefonora: 943-83 18 75. Juani.

Surf taula beltz bat galduta nuen Orioko Surf Taldearen lokalaren inguruan. Taula beltz kolorekoa da, eta ertzak kolore bizikoak ditu. Inork bilatu edo hartu badu, eskertuko nioke telefono honetara deitzea: 615 78 42 12. Aitor.

ITSASOA

Eguna	Itsasgora	Itsasbehera	Ilgaria
1	01:42 eta 14:18	07:54 eta 20:17	○
2	02:46 eta 15:14	08:53 eta 21:16	○
3	03:43 eta 16:06	09:46 eta 22:11	○
4	04:35 eta 16:54	10:34 eta 23:01	○
5	05:23 eta 17:38	11:20 eta 23:48	○
6	06:07 eta 18:21	12:03	○
7	06:49 eta 19:02	00:32 eta 12:45	○
8	07:28 eta 19:43	01:14 eta 13:27	○
9	08:07 eta 20:23	01:55 eta 14:08	○
10	08:46 eta 21:05	02:36 eta 14:50	○
11	09:29 eta 21:50	03:19 eta 15:35	○
12	10:17 eta 22:41	04:05 eta 16:26	○
13	11:15 eta 23:40	04:58 eta 17:25	○
14	12:20	05:58 eta 18:30	○
15	00:45 eta 13:25	07:00 eta 19:35	○
16	01:49 eta 14:22	08:00 eta 20:33	○
17	02:46 eta 15:11	08:52 eta 21:23	○
18	03:35 eta 15:55	09:38 eta 22:08	○
19	04:20 eta 16:37	10:19 eta 22:50	○
20	05:02 eta 17:17	11:00 eta 23:31	○
21	05:44 eta 17:58	11:41	○
22	06:26 eta 18:40	00:12 eta 12:22	○
23	07:09 eta 19:25	00:55 eta 12:56	○
24	07:53 eta 20:11	01:39 eta 13:51	○
25	08:41 eta 21:01	02:25 eta 14:39	○
26	09:32 eta 21:55	03:15 eta 15:31	○
27	10:31 eta 22:56	04:10 eta 16:29	○
28	11:37	05:11 eta 17:36	○
29	00:08 eta 12:50	06:21 eta 18:50	○
30	01:26 eta 14:02	07:33 eta 20:05	○
31	02:39 eta 15:05	08:40 eta 21:11	○

FARMAZIAK-UZTAILA

ZARAUZ

18, 19, 24 eta 30.	ETXERRIA: Gipuzkoa kalea, 17 / 943-83 23 98
2, 11, 12, 15, 20 eta 31.	ESPARZA: Santuturri plaza, 5-6 / 943-50 47 83
3, 9 eta 16.	GARMINE: Gipuzkoa kalea, 68 / 943-12 40 19
7, 13 eta 29.	IRIARTE: Zinkunegi, Pilarbo Enea / 943-13 29 70
17, 23 eta 27.	ITURRIA: Kale Nagusia, 12 / 943-83 29 70
4, 5, 10, 22, 25, 26 eta 28.	LARRAÑAGA: S. Frantzisko, 16 / 943-13 38 14
1 eta 8.	REDONDO: Urdaneta kalea, 8 / 943-13 31 83
6, 14 eta 21.	ZULAIKA: Bizkaia kalea, 41 / 943-13 39 94

Puntua jarrita

Ekiñe Saizar.
(Doinua: Orain hasi bihagu)

1

Aro berrira haurrak nola egokitu?

hauek egokitzeke
hainbeste meritu
erakusten beraiek
zaizkigu argitu
berriz ere handiak
txikiak jan ditu.

2

Haurren ongizatea
erabat ahaztuta
bi metroko tartea
ezin ulertuta
lagunaren usaina
ezin sumatuta
horrela jolasteak
zentzurik ez du ta.

3

Sarri etorkizunak
hainbat eskandalu
gaurko umeak bihar
zer esanik balu
eurak izango dira
pake ta istilu
gaurko erabakien
biharko ispilu.

Hurrengo bertsolaria:

Olatz Olariaga.

Puntua:

Isurketen ondoren
moila hurrez beteta

Hasi Bertsotan atalean puntuka ariko dira bertsolariak. Oraingoan Ekiñe Saizarreri jarri dio puntua Kepa Maizek: "Aro berrira haurrak nola egokitu?". Hurrengoari ere jarri dio puntua.



EKINE MIRALLES

ZATOZ GURE 50.URTEURRENA OSPATZERA

ERRETEGIA

Sarasua



Eusko gudari kalea, 29 behea
20810 Orio

info@bodegonsarasua.es

Erreserbak: 943-83 00 05